



Hauteskundeei begira, daborduko

[illegible]

Berango Antzokiak Antzerki Amateurren Jaialdiaren laugarren edizioa hartuko du hilabete honetan. Hala, hilaren 9tik 31ra bitartean Bilbo, Derio eta Berango bertako antzerki-talde amateurrek jardungo dute Berangon. Ikuskizun guztiak arrastiko 07:00etan izango dira; eta sarrerak 3 euro balio du. Fernando Ansoleaga antzerki-zuzendariak azaldu duenez, jardunaldi horien helburua jendea antzerkira zaleztatzea da, «afizioa sortzea». ▶14

Guatemalako umeen hezkuntza hobetzeko elkartasun-gunea izango da Erandiogoikoa asteakaburuetan. ▶5

Euskaraz Olgetan
martxan da berriro ere,
eskualdeko hainbat
herritan; aurtien berrikuntza
ugari dago. ► 10



Pentsalekutik

**MAITANE
NEREKAN UMARAN**
Ezertan aditua, askotan aritua

Azterketa edo ebaluazio jarraitua?

Edozein ikaskuntza prozesutan ebaluazioa beharrezkoa da. Eskola formalean zein kaleko unibertsitatean, ikasitakoa ez da guztiz baliagarri izango prozesuaren atzera begirakoa egiten ez badugu. Lau urteko masterra egin dut azken urteotan, amaitzeaz dudana. Autoebaluazio prozesua egiteko parada hartuko dut lerro hauetan; azterketa finala izango dut laster, baina horretan ez dut arreta guztia jarriko, ebaluazio jarraituaren zalea bainaiz. Gainera, irakasleen «maniak», eskolaren kutsu tradizionalistak eta txutxu-mutxuek nire motako ikasle endredatzaileen kontra jokatu ohi dute (argi esan zidan Getxo IIIko geografia irakasleak: «Ez nuen uste horietakoa zinenik»). Edukien barneratzeaz gain, jarri eta prozedurei jarri behar zaie arreta. Lan talderako gaitasunean pozik nago emaitzekin; talde berrian sartu eta lan giro ederra sortu dugu. Ikaskide ezin hobeak izan ditut egia esan, bakoitza kuadrilla ezberdinekoa izanda elkarrekin lan egiten ikasi dugu. Ikasgai oso zailak tokatu zaizkigu; terrorismo kapitalistak sortutako etxe kaleratzeena adibidez, gogorrenetakoa. Baita Parte Hartze politikena; oraindik ez dut ulertu zergatik eman dioten ikasgaiari izen hori, ikusi dugunak ez baitu zerikusirik izan Parte Hartzearekin. Ezin ahaztu irakasle kuttun bat joan zaigula, Angel, ikasketa ibilbidean markatzen zaituen horietako. Uste baino gehiago ikasi dudala konturatu naiz, ikasten jarraitzeko gogo indartu baitzait. Batzuk matrikula egin ez dudalako ea ikasketak uzteko asmoa dudan galdetzen didate. Ez. Oraindik gehiago ikasteko (eta endredatzeko) gogo dut, klasean edo eskolaz kanpoko jardueratan. Oporraldia ere behar dut; sanisidrotan klaseko afaria egiteko behintzat! Gora sanisidroak! ◀

Getxo

Libre Eguna Algortan

Maiatzaren bigarren hamabostaldian

epaituko dituzte Atxabal eta Moreno; hilaren 9an Libre Eguna egingo dute hori salatzeko.

Herriko bizilagunek zein eragileek jasaten dituzten jazarpenak salatzeko taldea jarri dute martxan Algortan. Hilabete honetan Xabat Atxabal eta Mikel Moreno gazteen kontrako epaiketak izango dira; hori dela eta, aipatutako taldeak Algortarrak Libre dinamika abiatu du, auzokide horien epaiketa politikoak gizarteratzeko.

Bi auzokide horien kontrako prozesuak urtarilaren 12an hasi behar zuen, baina egun horretan euskal abokatuen kontrako «sarekada» izan zen eta epaileak epaiketa maiatzera arte atzeratzea erabaki zuen. Gauzak horrela, hilaren 18an eta 19an izango da Atxabal eta Moreno algortarren kontrako epaiketa, Bizkaiko Lurralde Auzitegian. Gazte horiei desordena publikoak, desobedientzia eta agintaritzari eraso egitea leporatzen dizkiete, 2008an Durangon Herri Batasunaren 30. urteurrena ospatzeko ekitaldia Espainiako Auzitegi Nazionalak debekatu ostean jazotako gertakariak lotutakoak. Hori dela eta, Fiskaltzak 2 urte eta 9 hilabeteko espetxe-zigorra eskatu du gazte bientzat. Guztira, 9 pertsona daude auzipetuta kasu horretan. Halaber, Morenok beste auzi bat



Xabat Atxabal eta Mikel Moreno gazteak Algortarrak Libre dinamikako kideakaz batera.

du zain maiatzaren 28an eta 29an, Espainiako Auzitegi Nazionalen. 2013. urtean Urduñan ospatutako Gazte Danbada jaialdian Xabier Lopez Peña euskal preso hilberria gogoan izateagatik terrorismoa goratzea leporatzen diote, beste zortzi laguni bezala. Fiskaltzak eta AVTren akusazio partikularrak urte eta erdiko espetxe-zigorra eskatu dute Morenorentzat.

Libre Eguna, maiatzaren 9an

Aipatutako epaiketa laster dela eta, Algortarrak Libre dinamika bi gazte horien egoeraren berri emateko beharra ikusi du. Hala, Libre Egunera deitu du hilaren 9rako, zapatua. Egun osoan egitaraua prestatu dute horretara-

ko, Txiki Otaegi (San Nikolas) enparantzan.

Goizeko 11:00etan Getxoko auzo ezberdinen arabera banatutako taldeen artean herri-kirolak egingo dituzte. Ordubete beranduago, 12:00etan, orain dela hilabete bi abiatutako pala-txapelketaren finalak jokatu dituzte, emakumezkoena eta gizonezkoena. Ondoren, 13:00etan, gazte biei elkartasuna adierazteko argazki erraldoia aterako dute eta jarraian poteo musikatuan ibiliko dira herriko kaleak alaitzen. Azkenik, bertso-bazkaria egingo dute Abian kultur elkartearen, 14:30ean. Horretarako txartelak taberna horretan eta zapatuan bertan eskuratu ahal izango dira, 6 euroren truke. ◀

Zaborren tasak gutxitu gura dituzte greba egunengatik

Udalak zaborraren inguruko tasa bueltatuko die herritarrei greba egunengatik, «legez ahal bada», zehaztu dute; oster, ezingo balitz, aurrezpena kolektibo ahul eta babesgabekoenei zuzenduko zaiela adierazi du Udalak, gizarte-bazterkeriaren alorrean lan egiten duten elkarreentzako diru-laguntza modura. Halaxe erabaki zuten apirileko osoko bilkuran aho batez onartutako mozio batean, PPren beste mozio batetik ondorioztatua. Gobernu Taldeak jakinarazi duenez, egoera berbera bizi izan duten beste Udal batzuetan ez dute azkenean itzultzerik izan, Idazkaritza eta Kontu-hartzailetza arloen kontrako txostenak egon direlako. ◀



© GETXOKO UDALA

laz 49 getxoztarrek parte hartu zuten Gidabaimena Euskaraz egitasmoan. Horietako hiruk saritzat 100 euroko gasolina-txekea jaso zuten. Ekimena 17 eta 23 urte arteko gazteei zuzenduta dago eta aurten ere jarraipena izango du. Udalerriko bost autoeskolak kolaboratzen dute.

Getxo

Ekintzaileen garapenerako ekintza ugari egingo dituzte

Getxolan Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak bigarren hiruhilekoari dagokion prestakuntza-planaz baliatzeko epea zabaldu du. Planean jasotako ekintzak udalerriko enpresa txikiei eta enpresa sortzeko prozesuan dabiltzan pertsona ekintzaileei zuzenduta daude; eta horien profesionaltasun-maila handitu eta lehiakortasun-egoera hobetzea dute helburu. Enpresa-kudeaketa alorreko gai askoren gaineko prestakuntza-taillerak egingo dituzte, berbarako: enpresa-estrategia, saltokiaren kudeaketa, finantzak, zerga-arloa, datu-babesa... ◀

harremanetarako: getxolan@getxo.eus

Egunsentia haur-eskolan izena emateko epea zabalik

Irail, urri eta azaroan 0 eta 2 urte arteko umetxoak Egunsentia haur-eskolan hartzeko inskripzio-epea maiatzaren 13ra arte luzatuko du Udalak. Apirilaren 28tik aurrera jaiotako enkasuan, maiatzaren 13tik aurrera eman ahalko dute izena. Uztailaren 1etik aurrera entregatzen diren jaioberrien izen-emateak behin betiko zerrendak publikatu ostean kudeatuko dira (uztailak 10) beti ere dagokion adin-tartean leku librerik balego. Haur-eskola 07:30etik 17:00etara egongo da zabalik, eta 18:30ak arte luza daiteke, gutxienez 3 ume egonez gero. ◀

harremanetarako: 946 579 293 eta 944 030 515



Urtero legez, Bapirukek ere hiriko udalekuak egingo ditu udan.



Lehendakariak ikastolako umeakaz berba egin zuen. © EUSKADI.EUS

Urkullu lehendakariak Gobela ikastola bisitatu du

Iñigo Urkullu lehendakariak Getxo-ko Gobela ikastola bisitatu zuen Nahiko izeneko proiektua zuzen-zuzenean ezagutzeko. Aipatutako egitasmoa Emakundek aurrera eroandako proiektu hezitzailea da, berdintasuna eta errespetua bultzatzeko. Proiektu hori 2003an ipini zuten martxan ehun ikastetxetan baino gehiagotan, eta

daborduko 6.000 ikaslek parte hartu dute. Izaskun Landaia Emakundereen zuzendariagaz eta Carmen Garcia Gobela ikastolako zuzendariagaz egin zuen bisita Urkulluk. Hala, ikastolako irakasleakaz eta ikasleakaz berba egin zuen; unitate didaktikoen eta materialen berri izan zuen, neska-mutilen irizpizkiak jasotzeagaz batera. ◀

Umeentzako eskaintza askotarikoa prestatu dute uda honetarako

Udalak antolatutako udalekuez gainera, herriko taldeek ere hainbat egitasmo dituzte martxan etxeko txikientzat.

Udalak 5 eta 12 urte arteko neska-mutilentzako hiri-udalekuak antolatu ditu, Gazteria Zerbitzuaren bitartez. Horietan parte hartu ahal izateko, aldeztu aurretik izena eman beharra dago, maiatzaren 15a baino lehenago. Udalekuak uztailaren izango dira, aste biko txandetan banatuta: 1etik 14ra eta 15etik 28ra (astelehenetik barikura). Geroa ikastolan eta San Inazio eta Romo herri-ikastetxeetan eskainiko dituzte udalekuak, 09:00etatik 14:00etara. Txanda bakoitzean egun osoko lau txango egin-

go dituzte, herrikan kanpora. Herrikan irteten diren egunetan, ordutegia 09:00etatik 17:30era izango da.

Horiez gainera, Udalak ume eta gazteentzako aisialdirako beste hainbat eskaintza antolatzen ditu udalerrian: musika eskolan, ludotekan, gaztelekuan, Letren Terrazetan, Getxo Kirolaketa kirol-ikastaroak (izen-ematea zabalik dago hilaren 11ra arte), eta ikastaro trinkoak udal euskaltegietan.

Era berean, herriko elkarteek antolatutako eskaintza ere aurki daiteke, horien artean, Bizarra Lepoan elkartearen Bapiruke udalekuak. Azken horietan, bazkideek hilaren 13an, 14an eta 15ean eman beharko dute izena; bazkide ez direnek, berriz, hilaren 18an, 19an eta 20an. ◀

info+: gaztebulegoa@getxo.eus / 944 660 353
info@bizarralepoan.org / 944 910 387

KONTXI
ZU AZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

GetxoGas

Txartel hau
aurkezten baduzu

%50eko

deskontua

izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 33

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lixarrieriak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

TABERNA
Ekin
JATETXEA

CALLE BOLUE Nº4

TEL: 946080462

TABERNA
Unai
JATETXEA

ALGORTAKO ETORBIDEA, 96
48991 GETXO (BIZKAI)
TEL. 944661661
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM



Gai (des)ordena

LOHITZUNE
RODRIGUEZ AURREKOETXEA
Filosofian lizentziatua

Urtero da Maiatzaren Lehena

Egunero da maiatzak 1» dio berez leloak, baina marxista onak bezala errealitatearen baldintza objektiboetatik abiatuko bagara, onartu behar dugu inoiz gutxi dela benetan nazioarteko langileon eguna. Beharko luke egunero izan, baina ezin esan daiteke hala denik. Automatizatu zaigu borroka egun hau, borroka grina pizteko eguna aldarrikatzeko jaiegun bihurtu zaigu, kontra-koa lortzen saiatzen bagara ere.

Gizartea lokarturik dago. Edo... anestesiatutik, nahi bada. Baina ez gaitezen geure burua zigortzen hasi, edo sindikatuen lana antzua dela pentsatzen. Ez da gutxi historian zehar sindikalgintzak lortutakoa, eta egun, alde guztietatik datozkion erasoak duintasunez egiten die aurre. Langileon borrokak, ordea, ezinbestekoa du langile guztion indarra. Ez gaude edozein etsairen aurrean, gizartearen balioak eta ohiturak errotik aldatzea lortu duen sistema baten kontra ari gara, aurka zituen indarrak neutralizatzen eta asimilatzen asmatu duen orojalearen aurrean gaude. Cheren aurpegia irentsi eta merkantzia bihurtu duen munstroaren aurrean. Aurkaria ez dugu nolanahikoa, eta helburu duen kultura gero eta hegemonikoagoa da.

Alienazioa: langileon anes-tesia. Objektu bakarti bihurtzen gaitu, lehiakortasunean murgilduz, baina pertsona aske sinistaraziz. Inoiz baino presenteago, alienazioa da langileak esnatzeko oztopo nagusi. Horrekin apurtzen da behingoz asmatu behar dena. Kapitalismoak etengabe aldatzen du lepokoa, txakur bera ez dela sinis dezagun. Hala, betiko borrokak alboratu gabe, molde berriak behar ditugu. Langileak langile sentitzea lortu behar dugu, langile kontzientziarik gabe ez baitago langile klaserik.

Nola piztu kontzientzia? ◀

Getxo

info+: www.aeroespazioeskola.com

«Zientzia eta teknologia bultzatu beharra dago»

Zientziarekiko interesa gutxituz ei doa gazteen artean; horri aurre egiteko, Aeroespazio Eskolak zapaturu ematen ditu klaseak, 10:30etik 12:30era, Gobela kiroldegian.

Espazioaren inguruko ezagutzak garatzeko eta hedatzeko eskola sortu zuten iaz Getxon Teknologia eta Zientzia Espaziala masterreko hiru kidek. Gaur egun, Zalao Campillok, Angel Iglesiak eta Asier Lozanok daroate aurrera elkarrekin, eta euren helburua eraikin bat lortzea da, klaseak emateko, «bai haurrei baita nagusiei ere»; museo moduan erabiltzeko; eta behatoki bat jartzeko, besteak beste.

Nondik dator Aeroespazio Eskola sortzearen ideia?

Hirurok master bat egin dugu EHUn zientzia eta teknologia espazialari buruzkoa. Bertan ikusi genuen master hori bukatzean jendeak ez zuela ikasitakoa praktikan jartzen; ez da enpresarik ezta ezer berririk ere sortu master horretatik. Guk egiteko gauza asko daudela ikusi dugu. Industria aldetik, gauza berri ugari sortu ahal dira, Euskal Herrian oraindik ez ditugunak larregi jorratu. Ekonomia aldetik, hor badago etorkizuna; enpresa askok lana izan dezakete. Izan ere, hemen-
dik urte batzuetara aurreikusten de-

nez, 30.000 milioi euro inguru egon ahal dira alor horretako enpresetan. Azken finean, gauza asko egin ahal direla ikusten dugu. Mota horretako lan asko ekarri dezakegu Euskal Herrira, baina ez denez ezaguna, jendeak ez du bide hori hartzen. Guk gauza horiek azaldu nahi ditugu. Horretarako, hiru arlotan egiten dugu lan: hezkuntzan, txikienetik hasita ezagutza eta motibazioa bultzatzeko; dibulgazioan, egin ahal diren gauzak gizarteratzeko eta ideiak emateko; eta enpresan, izan ahal ditugun ideiak garatzeko.

Horretarako, elkarte bat sortu duzue.

Elkarte bat sortu genuen hiru kidek, hezkuntza-arlotik hasteko. Hasieran guk dirua jarri genuen eta haurren gurasoek ere kuota txiki bat ordaintzen dute hilero klaseen truke. Diru horre-
gaz behar ditugun gauzak erosten ditugu, hala nola «littleBits» delakoak zirkuitu elektronikoak egiten ikasteko. Apurka gauzak erosten hasiko gara. Berba asko egin dugu Udalgaz, baina ez dugu diru-laguntzarik jaso. Teknikari batek ari gara berbetan, eta horren laguntza jaso dugu. Trukean

gaude, prezio txikian ematen ditugu klaseak, eta trukean, Udalak gela bat uzten digu Gobela kiroldegian.

Denetarik jorratzen duzue eskola horietan: fisika, astronomia, biologia, teknologia, elektronika...

Azken finean, zientzia guztiak erlazionatuta daude astronomian; gauza horiek guztiak erabiltzen eta aplikatzen dira, horien guztien batuketa da. Teknologia aldetik ere gauza bera gertatzen da. Gure klaseetan ez dago teoria hutsa, dena ikusi beharra dago, zelan funtzionatzen duen ikusteko eta ulertzeko ere bai.

Irailerako jardunaldi berezi batzuk prestatu gura dituzue, ezta?

Bai, berrikuntzaren 24 orduak egin nahi ditugu. Horretarako, 16 eta 25 urte bitarteko gazteak bildu nahi ditugu, elkarren artean nahastu eta eraikin batean sartu. Bertan, hainbat erronka jarriko dizkiegu eta 24 ordu izango dituzte horiek ebazteko. Nahi dugu euren urteetan ikasitakoa praktikan jarri eta euren rola ezagut dezaten, bakoitzaren indargunea zein den ikusteko. ◀

Erendio

«Egunero zerbait berria asmatzen dute»

Jonathan Perez leioaztarrak bost urte darotza borrokan Martiartuko bere lursailean lanabes-etxola jartzeko. Udalbatzan protesta plazaratzen du hilero.



Bere egoera salatzetik Udalbatzak grabatzera pasa da Perez, gardentasunaren izenean. Bera eta bere lagunak identifikatu ditu Udaltzaingoak.

Jonathanen historia oso berezia da; jabegoan obra txiki bat egiteko, urteak etorri eta urteak joan, beti norbaitek arazoren bat jartzen dio. Baina, muinean, txosten teknikoak, bide-zorrak, isiltasun administratiboa, Arartekoaren ebazpenak, auzokideen arteko epaiketak eta lis-karrak albo batera utzita, hainbatek klasiko eta unibertsaltzat har dezake egoera: Sisifo harria behin eta berriz altxatzen; Josef K. *Prozesua*-n; edo belaunaldi berriei ezagunagoak egingo zaizkien Leioako campuseko irakasle kaleratuen pankarta, edo Asterix eta Obelix, *Hamabi probak* komikiko zoratzen duen etxea-n.

Zein da zure protestaren arrazoia?

Bost urte eta erdi baino gehiago darotzat Erandioko Udalak obra-baimen bat eman diezadan.

Legealdi osoa eman duzu udal bilkuretar joaten. Bertan zure paperak arintzea eskatzen zabilta?

Bai, ahal dudana denetara noa, lan egin behar badut, ez; konponbideren bat eman diezadaten, eta jakiteko, zergatik ez didaten baimenik ematen!

Zer esan zizuten baimena ukatzeko?

Betegarria neurritz gainekoa dela. Hori orain diote. Horrez gainera, nire lursaila oinezkoentzako bide batek ze-

harkatzen duela; baina, horretarako nik eman beharko dut baimena.

Legealdiko azken bilkuran, Udalbatzak herri-bideen inbentarioa onartu zuen. Zure bide hori agertzen da?

Ikertu dute, baina ez dago inbentarioan sartuta.

Horrek zer esan gura du?

Publikoa dela esateko aztarnarik ez dagoela; beraz, pribatua dela.

Gura duzun modura erabil zenezake?

Hori da. Epaiketak izan ditut horren kontura eta irabazi ditut: nire lursailko bide hori ez dela publikoa. Gero

hormigoizko beste bide bat dago, baina hori ere ez dago inbentariatuta publikoa ez delako.

Zenbat aldiz jo duzu epaitegi-tara Udalaren aurka?

Inoiz ez. Nire aurka joan diren auzokideen kontra jo dut. Kasu honetan, Hirigintzako zuzendariaren senideen aurka.

Epaiketez aparte, zure protesta-era udal bilkuretar agertzea da. Zergatik?

Epaitegira ez dut joan gura, dirua, dirua eta dirua baita. Ni dena arau subsidiarioen arabera egiten nabil, nire tenikoakaz, baina haiek boterea dute-nez...

Epaiketak irabazteak ez du zure espedientean eraginik izan?

Bai, niretzat positiboa da, baina haiek jo ta ke dabilta gai berberagaz, nire lurretan bide publikorik ez dagoela badakitenean.

Herri-bideen inbentarioa onartu izanak gaia konpon dezake?

Printzipioz bai. Ez dago arazorik. Argi egon beharko luke. Baina, bestalde, egin nuen betegarriaren aurka egiten dute, nahiz eta arau subsidiarioen arabera izan, nire lurrek %25eko aldats-maila dutelako; eta nik lau utzi behar dut bertan lanabes-etxola egiteko.

Zein izan da udal talde politikoen jarrerara zure protestarekiko?

Bilduk eta PSE-EEK babestu naute; PPK ere, neurri batean. Ikusten dute akatsen bat egon dela eta ez dute uler-tzen hainbeste traba.

Azken udalbatzan Alkateak esan zuen udal eta zure teknikoak ez zirela ados jartzen. Zein da hor arazoa?

Nik orain egin ezin dudana da betegarria eta tutuak kentzea eta horiek hormigoizko bidearen ondora aldatzea. Lehen aldentzea gura zuten eta orain, berriz, hurbiltzea; iritziz aldatu dira. Egunero zerbait berria asmatzen dute. ◀

Guatemalarekiko elkartasunez beteko da Erandiogoikoa aste akabu honetan

Erandiogoikoko Gurari elkarteak Eantolatuta, aste akabuan elkartasun jaia hartuko du aipatutako auzoak. Urtero egiten duten «hirugarren munduko edo garapen bidean dauden lurraldeen» aldeko ekimenaren onuraduna Guatemala herrialdea izango da aurtengoan, jaian batuko den diru dena bertara bidaliko baita; han, ume eta gazteen hezkuntza hobetzeko la-

nean dabilen Belüba Lüba Füreñdei (Ikastetxea) proiektura bideratuko dute. Elkartasun festa zapatuan izango den arren, barikurako Gurari elkarte-koez berbaldia eta argazki erakusketa antolatu dituzte.

Martxa solidarioa

Zapaturako prest dute egun osoko programazioa, besteak beste: jolasak, he-

rri-bazkaria eta erromeria izango dira aukeran. Bestalde, Ortzi kirol elkarteak X. martxa solidarioa antolatu du, ibilbide bikoitzagaz, nork berea egiteko: laburra edo luzea. Inskripzioa doakoa izango da, baina parte-hartzaile bakoitzak kilo bat elikagai eroango balu antolatzaileek eskertuko lukete. Domeka goizean, berriz, azoka izango da udaletxe zaharrean. ◀

Maiatzak 8, barikua

19:00 Berbaldia Guatemalako umez.

Maiatzak 9, zapatua

10:00 Gurariko txistularien kalejira.

10:00 Merkatua udaletxe zaharrean.

11:00 Jolasak umeentzat.

14:30 Herri bazkaria, txartelak Dandakan.

17:00 Bingoa eta mus-txapelketa.

19:00 Karaokea.

00:00 Erromeria Zirkirik Bez! taldeagaz.

Maiatzak 10, domeka

10:00 Merkatua udaletxe zaharrean.

Leioa

Gazteen lonjetako gida, kalean



Udalaren arabera, Leioan 60 lonja inguru dago eta 1.300 gaztek erabiltzen dituzte.

Neska-mutilen aisialdiko lonjek bete behar dituzten baldintzak eta arauak jaso ditu liburuxka batean Udalak.

Besteak beste, gazteek aisialdian erabiltzen dituzten lonjek bete beharko lituzketen segurtasun eta bizigarritasun baldintzak jasotzen dituen gida kaleratu du Udalak, Gizagune Fundazioaren laguntzaz. Bizikidetzaz arazorik sortuko balitz, gatazkak elkarriketa bidez kudeatzeko zerbitzua dago herritarren eskura. Gaur egun, 60 lonja inguru daude Leioan, eta gutxi gora-behera 1.300 neska-mutilek erabiltzen dituzte, udal iturrien arabera.

2013an abiatu zen proiektuan, modu koordinatuan lan egin zuten Udaltzaingo, Gaztegune eta 14-35 urte

bitarteko ikasleak dituzten ikastetxeak; eta lonjen erabiltzaileak ere elkarriketak egin zituzten.

Beharrezko baldintzak

Gidan aipatzen denez, espazioak bizigarria izan behar du: ur, argi eta komunarekin; 100 metro koadrotik beherako espazioan, 2,30 metroko gutxieneko garaierarekin; eta ezin du etxe batekoa berezkoa den ekipamendurik (sukaldea edo oheak, esaterako) eduki. Lonja erabiltzean ezin da eragozpenik sortu etxeko komunitatean zaratak direla-eta, eta, horregatik, 23:00tik 07:00etara, arreta handiagoz ibili beharra dago eta zaraten gaineko araudia errespetatu, baita lonja inguruan ere. Bestalde, adin txikikoek ezin dute edari alkoholodunak, tabakorik edo drogarik kontsumitu bertan. ◀

Leioako Gazteen Lonjetako Bizikidetzaz Zerbitzua:
944 126 658 / 638 322 065 / gaztelonja@leioa.net

Iaz 23 atxiloteta egin zituzten udaltzainek

Udaltzainek 2014an egindako 23 atxilotetetatik, 9 lapurreta edo horren saiakerakaz lotuta egon ziren, eta beste 7, bide-segurtasunaren aurkako delituakaz, Udalak emandako datuen arabera. Aspaldiko partez, pasa den urtean, estupefazianteakaz trafikatzegatik pertsona 21 atxilotu zituzten, eta beste 3, zigorra urratzearen ondorioz, epaileak hala aginduta. Bestalde, zortzi adingaberen guraso edo tutoreei jakinarazi zitzairen alkohola edo beste substantzia batzuk kontsumitzen zebiltzala gazteak bide publikoan, eta 9 espediente zabaldu zitzaizkien estupefazianteak kontsumitzen zebiltzan helduei. Leioako 34 udaltzainek 561 salaketa kudeatu zituzten. ◀

Edukiontzi marroiak jartzen segitzen dute

Udalak maiatzean amaituko du herriko kaleetan 69 edukiontzi marroi jartzen; Pazko asteen hasi ziren. Herriko agintariek azaldu dutenez, edukiontziak auzo denetan ipini dituzte: «Hasiera batean biltzea espero den bolumenarekin ezin da edukiontzi bat jarri karga-gune bakoitzean, eta horregatik, estrategikoki banatu dira eremu denetatik. Karga-gunerik hurbilenean ez bada ere, edukiontziren bat hurbil edukitzeko aukera daukate auzotarrek». Ekimenagaz bat egiteko kitak eskuragarri daude oraindino hondakin-bilketaren ardura duen enpresak Leioan daukan bulegoan, Independentzia kaleko 10. zenbakian dagoena. ◀

Zientzia eta ezagutzak kalera aterako dituzte

Maiatzaren 9an, zapatua, Zientzia Kalera ekimena eta Ezagutzen Azoka egingo ditu Herrigune Leioak. Hitzordua 12:00etatik 14:00etara jarri dute Bulebarrean. Alde batetik, zientziari buruzko ezagutzak partekatzeko aukera edukiko dute adin denetako herritarrek. Ezagutzaren Azokari dagokionez, parte hartzen duten lagunek alde aurretik Leioaztarren Ezagutzen Sarean gai ezberdinen gainean dauzkaten ezagutzak zein jakin-minak eskaini edo eskatu dituzte, antolatzaileek azaldu dutenez. Dena dela, azokako ikastaldi denak publikoaren parte-hartzeari ire-

kiak egongo dira. Aipatutako ekintza-sareagaz kontaktuan jartzeko ere bide ezberdinak daude, hilaren 9an Bulebarrean agertzeaz gainera.

Posta elektronikoa idatz daiteke, «komunitatearekin» kolaboratzeko gogoia adieraziz; telefonoz ere dei daiteke. Baina, hirugarren aukera du gustukoen Herrigunek: eguenero egiten duten bilkuran parte hartzea. Aipatutako elkargunea herritar denei irekita dago eta 17:00etatik 20:00etara izaten da, Iturriondo kaleko 10. zenbakiko bigarren solairuan, metroaren ondoan. Gazteei zein nagusiei zabalik dago. ◀

info+: 944 029 780 / info@herrigune.org

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Jarrai gaitzazu:

f **t**

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

Sopela



Udalak herriko eragileak osatu du jaialdiaren programa

Indartsu dator Sopela Kosta Fest jaialdiaren bigarren edizioa

Kiko Veneno, Pirritx eta Porrotx, surf txapelketak, Baskery, fracking-aren kontrako bertso-saioa, Tania de Sousa eta abar, eta abar. Irailaren 23tik 27ra surfagaz, naturagaz eta musikagaz lotutako hamaika jarduera egongo dira Sopelan, Kosta Fest jaialdiaren baitan. Udala izango da antolatzailea, herriko hainbat eragilegaz batera, eta ekimen denak debalde izango dira. Jaialdiaren helburua: turismoa indartzea eta herriko dendari eta ostalariei laguntzea.

Bigarren urtez, Sopelako Udalak Sopela Kosta Fest (SKF) jaialdia antolatuko du uda agurtzeko asmoz. Irailaren 23tik 27ra, musika, surfa eta naturaren babesagaz lotutako jarduera ugari, denak debalde, izango dituzte gozagai sopoloztarrek zein bisitariak. Udalak aurreratu duenez, «Iazko arrakasta ikusita jaialdiaren bigarren edizioa antolatzea erabaki dugu, herriko eragileak batera», eta programaren nondik norako gehienak itxi dituzte jada.

Lehenengo edizioan legez, SKFk bost eguneko egitarau potoloa izan-

go du; jarduera batzuk iazko berdinak izango dira: surf ikastaroak, parapente-hegaldiak, suzko argi-faroltxo solidarioen hegaldia (aurten 500 izango dira, 300 izan beharrean), Sopela Kantariren kalejira, Euskal Herriko surf-taldearen arteko txapelketa, hegaztiak ikusteko irteera, bisita gidatuak...

Iaz legez, aurten ere musikak leku garrantzitsua izango du jaialdian. Udaletxe plazan karpa ipiniko dute, eta kontzertuak barikuko eta zapatuko gauetan izango dira. Barikuan eszena-tokira emakumezkoak igoko dira: Baskery talde suediarra, ospeari

eutsiz dabilen Tania de Sousa kantaria eta Las Gildas talde sopoloztarra. Zapatuan Kiko Veneno izango da kartelburua, The Uski's surf-taldeagaz batera, eta konfirmatu bako beste talde bik ere joko dute.

Domo geodesiko bat, plazan

Naturaren babesa izango da jaialdiaren bigarren ardatza. Iazko jardueraz gain, aurten berri nagusia bioeraikuntzagaz lotuta egongo da; domo geodesiko bat eraikiko da Udaletxe plazaren berdegunean, material ekologikoak erabiliz, eta bioeraikuntza ikastaroa

jasotzeko aukera ere egongo da. Horrez gainera, besteak beste, fracking-aren kontrako bertso-saioa egongo da Fredi Paia, Ekaitz Larrazabal 'Katxo' eta Jone Uriak jardungo dute kantuan.

Bestalde, surfari dagokionez, hainbat txapelketa antolatuko dira hondartzetan, eta, gainera, irailaren 24an surfagaz lotutako film laburren txapelketa egongo da. Daborduko izena emateko epea zabaldu dute.

Azkenik, aurten umeei arreta berezia eskainiko die SKFk, eta jaialdiaren lehenengo ekitaldia Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia izango da. ◀

Sahararen autodeterminazioa eskatu du udalbatzak

Udalbatzan ordezkaritza duten lau alderdiak ados jarri ziren apirilaren 28an Sahararen autodeterminazioa eskatzen duen testua onartzeko. EH Bilduk, EAJk eta PSEk alkarregaz aurkeztu zuten proposamena, eta PP-ren zinegotziak ere aldeko botoa eman zuten. Aho batez onartutako testuak Espainiar Gobernuari eskatzen dio aitortzean Menbaldeko Sahararen gatazkan duen erantzukizuna: «1975. urtetik

amaitu barik dagoen deskolonizazio-prozesuari amaiera eman behar zaio, saharar herriaren borondatearen adierazpen libre eta benetakoa ziurtatuko duen erreferendum bat eginez». Horretarako, konpromisoak eskatuko dizkio Udalak Espainiako Gobernuari gutun bidez: «Espainiak duela 40 urte abandonatu zuen Mendebaldeko Sahara, erantzukizun zuzena dute». ◀

info+: www.sopela.eus

Maiatzaren 8an Ideien Jaia antolatu du jai-batzordeak

Sopelako umeei euren amets setako jaiak marrazteko aukera izango dute maiatzaren 8an, Sopelako jai-batzordeak antolatu duen Ideien Jaian baitan. Pasa den urtean egin legez, jai-batzordeak herriko umeei galdetuko die zer-zelako proposamenak dituzten jaietarako, eta gehien errepikatzen diren jarduerak programan ipiniko dituzte. Hitzordua 18:00etan, Kurtzio kultur etxean, izango da. ◀



Gurasoen lantaldea sortu du jai-batzordeak

Sopela

«Egunero 24 orduz bakartuta daukate»

Sonia Polo Escobes (Bilbo, 1968) Etxerateko kideak bere neba Sergio Polo presoaren egoera «larria» salatu gura du, bost hilez isolamendu-moduluan bakartuta dutelako.



Polok mozioa aurkeztu zuen apirilaren 28ko udalbatzan.

Sopelako udalbatzak Sergio Polo herriko presoak «pairatzen» duen isolamendu-egoera amaitzea onartu zuen apirilaren 28an. Mozioa Etxerateko kide eta Sergioren arreba Sonia Polok aurkeztu zuen. Testuak EH Bilduren aldeko bo- toak jaso zituen; EAJk abstentziorantz jo zuen eta PSEk zein PPK kontra boz- katu zuten.

Zer dela eta erabaki zenuen Sopelako Udalari mozioa aurkeztea?

Lehenik eta behin argitu gura dut ez dela egun batetik besterako erabakia

izan. Aspaldidanik salatzen ibili gara Sergioren egoera larria dela, baina denboragaz beste maila batean borro- katu behar genuela erabaki genuen: erakundeetara jotzea funtsezkoa irudi- tu zitzaigun. Alde batetik, instituzioak gure eskubideen berme-emaileak ei direlako. Bestetik, sistema «demokra- tiko ziztrin» honetan, ez delako gauza bera kartzelako «zuzendari txit horri» kargu publiko batek azalpenak eska- tzea ala senide batek egitea. Martxoan Sopelako alkateagaz harremanetan jarri ginen, eta, egoeraren larritasunaz jabetuta, berehala Sergioren egoera-

ri buruzko kezka igorri zion kartzela- ko zuzendariari. Egoera luzatzen ari dela ikusita, mozioa aurkeztea erabaki genuen. Pozik gaude mozioa aurrera atera delako. Orain, udalbatzak onar- tu zuena bete beharko du, eta ikusi dugunaren arabera, lanari ekin diote lehen momentutik.

Zein da zehazki Sergioren egoera?

Kordobatik Algecirasera eramane- zuten, gradua aldatu zioten eta zuzenean isolamendu-moduluan bakartu- ta sartu zuten, hau da, bakar-bakarrik. Ordutegi bereziak jarri dizkiote beste

inogaz ez elkartzeko. Patioko orduak bakarrik pasatzen ditu, euripean. Ba- karrik bazkaltzen du, bakarrik dago gaixorik dagoenean eta bakar-baka- rrik dago bizkarreko minak ohetik al- txatzen uzten ez dionean. Bakarrik egunero 24 orduz, astelehenetik do- mekara, abendutik urtarrilera, ur- tarriletik maiatzera... Batzuetan ba- karrizketak egiten ditu bere ahotsa entzuteko. Egoera jasanezin honetan bost hilabete baino gehiago darama- tza Algecirasen. Zerbait larria gertatu- z gero... nor lagunduko lioke? Nola ja- kingo genuke? Bakardadea asteko 40 minutuko bisitak eta hilabeteko 90 mi- nutuko bisak apurtzen dute.

Eta zer dela eta mantentzen dute ba- kartuta?

Ideiarik ere ez. Baina, egia esanda, lehenengo momentutik beragaz tema- tuta egon dira. Agian duintasuna ga- resti ordaintzen da leku horietan.

Aurretik ere muturreko egoeretan egon izan da...

Bai, bere kartzelaldia oso gogorra iza- ten ari da. Adibiderik latzena Galizan pairatu zuen. A Coruña ospitalera eramane zuten bizkarreko-mina zela eta. Trasladoa eskuak atzean lotu- rik egin behar izan zuen, eta epaite- giko ziegan guardia zibil batek jipoi- tu zuen, «no me mires, vasco» esaten zion bitartean. Jipoi ederra eman zion, lau polizia nazional aurrean zituela. Furgonetan ere egurtu zuten, eskuak atzean lotuta zituela, «te mato, te mato, patriota de mierda» esaten zio- ten bitartean. Horrez gain, aitaren hi- letara ekarri ez izana edo bere alaba jaio zenean baimena ukatu izana bes- te adibide latz batzuk dira.

Eta horri dispertsioaren «zigorra» gehitu beharko litzaioke...

Bai, dispertsioa barrukoari eta kanpo- koei ezarri diguten zigorra da. Sergio etxetik 2.200 kilometrora eramane dute, espetxe barruan ere sakabanatuz. ◀



Hautzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus



DIDAK hamilton
IDIOMAS
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TE 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK
ABIERTO PERIODO DE INSCRIPCIÓN

HAUTZAINDEGIA
SOPELA

IZENA EMATEKO EPEA /
Periodo de inscripción:

Maiatzaren 4tik 13ra
Del 4 al 13 de mayo

EKAINAREN BAY ATE IREKIAK 6:30P.M

8 DE JUNIO JORNADA DE PUERTAS ABIERTAS 6:30P.M

TELEFONOA: 94-676 25 59

www.hautzaindegia.eus

Gorliz



Udalak ez du onartu errota zaharra berritzeko obren eskaera.

Errota zaharra berritu guran

Udalaren «itxikeria» salatu eta ur-errota berriztatzearen aldeko sinadurak batzen hasi dira.

Gorlizko hainbat auzokidek Zabalerrota berriztearen aldeko kanpaina abiatu dute. Udalerrian zahaberritzeko egoeran gelditzen den ur-errota bakarra da Zabalerrota; hori dela eta, Udalak eraikin hori berriztatzeko baime-na eman dezan sinadurak batzen hasi dira hainbat auzokide. Errota XVI. mendekoa da, eta 1945era arte egon zen martxan, bitartekoen zerbitzura-

ko. Ondoren, udalerriko auzokideen zerbitzurako erabili zen, 1956era arte. Azkenik, 1967ko abenduan sute batek erabilezin utzi zuen.

Zabalerrota.eu webgunean azaltzen dutenez, «gaur egungo jabeek ezaguna den azken konfigurazioan oinarrituz berriztatu nahi dute errota. Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailak balorazio onuragarria eman arren, Gorlizko Udala horren kontra agertu da».

Daborduko 300 pertsonak baino gehiagok sinatu dute errota hori berriztatzearen alde. ◀

info+: www.zabalerrota.eu
www.change.org

Enplegua sustatzeko programa martxan

Gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoak kolpe larriak eman ditu eskualdean. Hori horrela, hainbat programa abiatu dituzte egoera horri aurre egiteko asmoz inguruko udalek, tartean Gorlizko Udalak. Izan ere, Gorlizko Gobernu Taldeak martxan ipini du udalerriko enpresetan enplegua sustatzeko ohiz kanpoko laguntzen programa: Gorlizlan. Horren bitartez, Gorlizko langabeak kontratatzen dituzten enpresei laguntza eman zein autoenplegua sustatuz enplegua sortzen dutenei «pizgarriak» emango dizkiete. Horretarako, talde politiko denen babesa eta laguntza izan dituela jakinarazi du Gobernu Taldeak. aurtengo aurrekontutik 60.000 euro bideratuko dituzte diru-laguntza horietara.

Laguntzen zenbatekoak

Langileak kontratatzeagatik itzuli beharrekoa ez den diru-laguntza zeha-

tza ezarri du Gorlizlan egitasmoak, lanpostuaren iraupenaren arabera: 1.500 euro, lanaldi osoko kontratu mugagabeetarako; 750 euro, lanaldi erdiko kontratu mugagabeetarako; 1.000 euro, urtebeteko edo hortik gorako aldi baterako kontratu etetarako; eta lau hilabete eta urtebete arteko aldi baterako kontratu etetarako, zatia banatu egingo da, kontratuaren iraupenaren arabera. Enpresak sortu gura dituztenek ere laguntzak jasoko dituzte; hala, horiek 3.000 euro jasoko dituzte, gehienez ere inbertsioaren %60 finantzatzeko. Diru-laguntza horiek beste batzuek bateragarri izan daitezke, ez badute enpresa martxan jartzeko gastuen %100 gainditzen.

Aipatutako diru-laguntzetako bat jasotzeko, interesatuek ezarritako oinarriak bete eta agiriak entregatu beharko dituzte. ◀

info+: www.gorliz.eu

Aurten ere umeek udalekuek gozatzeko aukera izango dute

Ekainaren 29tik abuztuaren 28ra Earte 2003 eta 2009 artean jaiotako neska-mutilek udalekuek gozatu ahal izango dute Gorlizen. Txandak astekoak izango dira, astelehenetik barikura, 10:30etik 14:00etara. Antolatzaileek azaldu dutenez, Gorlizen, Plentzian edo Lemoizen erroldatutako familiek 50 euro ordaindu beharko di-

tuzte aste bakoitzeko; gainontzekoek, osterara, 82,50 euro. Udaleku horietan parte hartu gura dutenek aldeztu aurretik eman beharko dute izena Gorlizko kultur etxeren batean, maiatzaren 15a baino lehen. Ordainketak, berriaz, maiatzaren 25etik ekainaren 5era bitartean egin beharko dituzte. ◀

harremanetarako: 946 774 000

Urduliz

Haurreskolan izena eman daiteke daborduko

Interesatuta dauden guraso edo legezko tutoreek daborduko jo dezakete Urdulizko haurreskolara, 2014 eta 2015. urteetan jaiotako seme-alabak inskribatzeko. Zentroa Arteta kaleko 2. zenbakian dago. Urdulizko Udalak eta Haurreskolak Partzuergoak zabaldu dutenez, epea hilaren 13ra arte, eguaz-

tena, egongo da zabalik. Zentroak, berriaz, ekainaren 16an kaleratuko ditu behin-behineko zerrendak. Ondoren, erreklamazioak egiteko bi aste izango dira. Horiek ebatzita, uztailearen 10ean ezagutaraziko dituzte behin betiko zerrendak. Umeek, berriaz, irailaren 4an hasiko lukete ikasturtea. ◀

Plentzia

Udako yoga ikastaroan izena eman daiteke daborduko

Udako hilabeteetako eguraldi ona eta itsasoaren kresal usain gozoa aprobetxatuz, yoga ikastaroa egingo dute Plentziako hondartzan. Ikastaroa 18 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta gehienez 15 lagunek parte hartu ahal izango dute; ikastaroa abiatzeko gutxienez 8 pertsonako taldea sor-

tzea beharrezkoa izango da. Hala, aldeztu aurretik izena eman beharra dago, Goñi Portalean, hilaren 18a baino lehen. Klaseak ekainean eta uztailean izango dira, martitzenetan eta eguene-tan, 19:30etik 21:00etara. Lehenengo klasea ekainaren 2an izango da. ◀

info+: www.plentzia.org / 946 775 541

**SARTU GURE
WEB BERRIAN**
www.cianoplan.es
902 103 763

❖ kartelgintza



❖ inprimategia



❖ kopisteria



*Baldea*UNAI
BREA GONZALEZ
Argiako kazetaria

Gitarra nik *tokatxen* det... D ereduan

kasturte honetan gitarra irakasle nabil Uribe Kostako Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko batean. D eredukoa da ikastetxe horrek egiten duen eskaintza, eta D eredukoak dira, halaber, nik ematen ditudan eskolak, kontratatu ninduen guraso elkartearen aginduz eta, susmoa dut, nire ikasle maiteen borondatearen aurka. Ez euskararen aurka daudelako noski, hizkuntza horretan gutxieneko jarioari eustea erronka latza suertatzen zaielako baino.

D ereduko ikasleen %32k ez du behar adinako hizkuntz gaitasuna lortzen, Eusko Jaurlaritzak eskatuta behinola egindako ikerketa baten arabera. Zalan-tzarik ez dut, portzentaje horren barruko milaka euskal umeen multzoan kokatu behar direla nire agindupean gitarra *tokatxen* saiatzen diren hogeitik gora neska-mutilak. Are gehiago: ausartuko naiz esatera Uribe Kostan lehen hezkuntzan dabiltzan ikasle gehien-gehienak direla tipologia horren barrukoak, adierazpen hori sostengatzen duen daturik ez badut ere.

Pentsamendu horrek beste honetara narama: zein unetan erabaki behar luke Euskaltzaindiak euskararen arauak aldatu egin direla? Hau da, *gaur zapata batzuk erosi naiz* esaten dutenak gehiago direnean *gaur zapata batzuk erosi ditut* esaten dugunok baino, lehengo arauari eutsi beharko diogu? Molde zaharrean esaten duen azken hiztuna hil arte eutsi beharko zaio arauari? Hizkuntzak elkar ulertzeko badira, eta gutxiengoa bada gauzak «ondo» esaten dituenen, zentzua du esateak hori dela gauzak «ondo» esateko era, hori dela pertsona kabalen piura?

Kedatzen nais suen opinioiak esperatzen, eta ez, ez naiz exajeratzen ari. Nik ere ez nukeen sinistuko orain dela bederatzi hilabete. ◀

Uribe Kosta

Martxan da aurtengo Euskaraz Olgetan

Aurten berrikuntza ugari egongo dira programazioan, barbarako helduei begirako tailer bereziak; euskarazko hainbat jolas eta kanta ikasteko aukera ere egongo da.



Ohi bezala, egunaren arabera jarduerak herri batean ala bestean lekutuko dira.

Bueltan da Euskaraz Olgetan egitasmoa. Proiektua orain dela urte batzuk sortu zen, euskara familien artean transmititzeko asmoz. Lemoiz, Plentzia, Urduliz, Gorliz eta Sopelan hainbat jarduera antolatuko dituzte maiatzan eta ekainean, eta, gero, irailean eta urrian. Aurten, gainera, berrikuntza ugari daude programazioan, esaterako, helduentzako tailer bereziak.

Maiatzeko jarduerak

Gurasoentzako tailer bereziez gainera, ohi legez, etxeko txikienentzako jarduerak ere egingo dituzte hilabete osoan: lehenengo astean, hilaren 10era arte, txotxongilo tailerra egingo dute; bigarren astean, berriz, hilaren 11tik 17ra arte, esperimendu harrigarriak eta ponpa egiteko tailerra egingo dituzte; hilaren 18tik 24ra bitartean, euskal jolasak eta abestiak ikasteko aukera izango dute; eta hilaren 25etik 31ra, munduko kirolak eta kirol originalak ezagutzeko aukera izango dute. ◀

info+: www.uribekosta.org
euskarazolgetan.wordpress.com

Berango

Iratxoakaz batera, festan ibiliko dira etxeko txikienak

Ohi bezala, Berango Antzokiak ekimen ugari hartuko ditu aste honetan. Izan ere, maiatz osoan, Berangok Antzerki Amateurraren IV. jaialdia hartuko du; hala ere, ez gara horretan geratuko, beste hainbat ikuskizun egongo baitira aukeran, umeentzako antzezlanak, barbarako. Maiatzaren

10ean, etxeko txikienek *Kondaira baten truke* izeneko ikuskizunaz gozatu ahal izango dute Berango Antzokian. Horretarako hitzordua 18:00etan ipini dute, eta umeek «iratxoaren naturaren festa» ezagutzeko aukera ezin hobea izango dute, euskaraz. Sarrera doakoa izango da. ◀

Lan-arriskuei aurrea hartzeko ikastaroa egingo dute

Eraikuntza-munduan lan-istripuak egutzitzeko asmoz, Berangoko Udalak lan-arriskuak prebenitzeko ikastaroa egingo du. Aurtengo edizioa bigarrena izango da, eta maiatzaren 15era arte aukera egongo da ikastaroan izena emateko. ◀

info+: www.berango.net

Lemoiz

Eskualdeko azken oihalak josiko ditu GEDk Lemoizen

Iazko ekainean egin zen ekimen erraldoiaren atarian hasi ziren Lemoizen Gure Esku Dago dinamikan lanean. Ordutik, denbora laburreko atsedena hartu dute, baina daborduko martxan dira aurtengo erronka berriari aurre egiteko: «Erabakia #ehuntzen» ekimena. Jarduera hori ekainaren 21ean izango da; egun horretan hautetsontzi erraldoiak eraikiko dituzte Euskal Herriko hiriburuetan, herriz herri baitzen dabiltzan oihala-zatiak elkar josiz. Horretarako, datozen asteetan zentzualdi antolatuko dituzte ekimena herrian zabaltzeko, besteak besta: Ehuntze Eguna maiatzaren 10ean. Or-



duan, herriko oihala-zatiak elkar josiko dituzte, festa giroan. Horrez gainera, domeketan mahaiak jartzen hasi dira ekaineko ekimenaren aldeko atxikimenduak jaso eta informazioa zabaltzeko. Era berean, dinamikan parte hartzeko deia luzatu du taldeak. ◀

info+: gure.esku.dago.lemoiz@gmail.com

Barrika

Umeek uda herrian gozatzeko, udalekuak prestatu dituzte

Umeentzako udalekuak Barrikara heldu dira. Hala, ekainaren 29tik uztailaren 10era arteko hamabostaldian, 4 eta 10 urte arteko umeek hainbat ekintzaz gozatzeko aukera izango dute: tailerrak, txangoak, ikuskizunak, jolasak eta kirol-ekintzak, barbarako. Udalekuen ordutegia malgua izango da; sarrera 08:30etik 09:30era, eta irteera 14:00etatik 14:30era. Egun osoko txangoak daudenean, berriz, ordutegia 09:30etik 17:30era izango da. Aste biko udaleku horien prezioa 81 eurokoa da herrian erroldatuta dauden umeentzat; besteek, berriz, 108 euro ordaindu beharko dituzte. ◀

Ertibil erakusketa, abian



Ertibilek saritutako Ane Etxegarai leioaztarraren *Controversia* bideo-sorkuntzaren irudi bat. © ERTIBIL

Bizkaiko ikusi-arten erakusketa ibiltaria martxan da; bertan lanak erakutsiko dituztenen artean daude Andere Etxegarai leioaztarra eta Maria de Viana getxoztarra.

Maiatzaren 15etik uztailaren 5era Bilboko Rekalde Aretoan abiatuko dute Ertibil Bizkaia 2015 ikusi-arten erakusketa ibiltaria.

XXXIII. ekitaldia du Ertibilek aurtengoa eta, ohi den legez, hastapeneko helburuari eusten dio: “Bizkaiko arte-sortzaile berrien, eta beste erkidego batzuetakoak zein Europakoak izan arren euren arte-lana Bizkaian egiten

duten artistak laguntzeari eta horien lanak sustatzeari”. Ertibil, lehenengo lehiaketa eta aukeratutako lanak osteko erakusketa, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen du, hainbat udalen laguntzaz, horien artean dago Getxokoa. Antolatzaileek diotenez, “herritarrei artearen azken joerak erakutsi nahi dizkiegu, eta, aldi berean, sortzaileak sustatzeko eta babesteko lana egin nahi dugu; gure ingurune

hurbilenean sortzen diren abangoardiako arte-joeren erakusleho izan”. Pintura, eskultura, grabatu, argazkigintza eta DVD-bideo modalitateetako lanak batzen ditu lehiaketako deialdiak urtero. Ostean, lehiaketara aurkeztutako artean aukeratutako 20 artistaren obren erakusketa 11 herri-tan ipiniko dute; eta iragarri dutenez, eskualdean, Getxon egingo du geldialdia: uztailaren 30etik abuztuaren 21era, Algortako Torrene aretoan.

Erakusketarako aukeratu diren lanen artean, gainera, uribekostar sortzaile biren proposamenak daude. Batetik, Andere Etxegarairen (Leioa,

1980) *Controversia* bost minutuko bideo-sorkuntza; leioaztarra aurtien Ertibilek saritutako hiru artistetako bat izan da, eta bere proposamena hala azaldu dute: “Alderdi teknikoa da na-

Ertibil erakusketa
Getxon egongo da
ikusgai, uztailaren 30etik
abuztuaren 21era

barmentzen den lehenengo. Pantailan bi bideo-seinale independente agertzen dira, formatu desberdineko bi leihotan (...). Fotograma bakoitzaren eratze teknikoak berak jada jendea prestatzen du, aldi berean nolabait kontra egiten duten bi mezu jasotzeko; edukiek zenbait kontraktasun dituzte...”. Bestetik, Maria de Vianaren (Getxo, 1981) *Black box eta white cube* lau argazkiz osatutako collagea ere ikusgai egongo da; sormen-lanari dagokionez, “Tituluak prestatze aurreko arteetatik arte plastikoetara pasabidea iradoki du (...) testuinguru beltzean, performancea egiten duenaren gorputza oso baldintza zehatzetan ikusgai dago (...) Collagearen teknikak argazki-objektiboaren foku bakarrari dagokion geometria asaldatzen du eta irudian denbora sartu ere bai; aurkezten digun gorputza irudi dislokatur, mugikorra eta estatikoa, aldi berean, bakarra eta anitza da”.



Iazko ArgIHizkiak erakusketako aurkezpen-ekitaldia, Getxon.

ArgIHizkiak lehiaketako azken egunak, arin ibili!

Maiatzaren 15era arte bidal daitezke testu laburrak ArgIHizkiak lehiaketara; eta euskaldunei, eta, batez ere, uribekostarrei parte hartzera dei egiten diete antolatzaileek. Argazkietan oinarritutako testu laburren IV. lehiaketa Egizu elkarteak eta HIRUKAk, Uribe Kostako hainbat udalek (Leioa, Berango, Getxo; eta Makomunitatea) eta zenbait elkarte (Berbots, Bizarra Lepoan, Aitxu!, Leioako berbalagunak) elkarlanean antolatzen dugu. Aurtien testuak oinarritutako diren 10 argazkiak ondoko argazkilariek proposatu dituzte: David Herranz, Marisol Ramirez, Luis Jaure-

gialtzo, Ines Bermejo, Sonia Aoujil, Nerea Falagan, Marta Iraurgi, Ivan Viña, Patricia Merino eta Itsaso Bartolomek. Lehiaketan parte hartzeko kontuan hartzeko batzuk hauek dira: 16 urte-tik gorakoek parte har dezakete; euskara batuan ala edozein euskalkitan idatz daitezke lanak edozein dela testu mota (prosa, bertso, etab.); atal bi daude: testu labur-laburren (160 karaktere gehienez) eta laburren (100 hitz gehienez); idatziak WhatsApp edo posta elektronikoz bidal daitezke. Ez ahaztu, 200 euroko sari nagusi bi daudela!◀

info+: www.argihizkiak.com
685 73 29 63 / argi.hizkiak@gmail.com

2015/05/10 - ordua: 18:00

Kondaira baten truke antzezlan

Berango Antzokia | Berango

Haur-antzerkia, Patata Tropikala taldearen eskutik. Euskaraz. Sarrera doan.

2015/05/12 - ordua: 20:00

Dias de vinilo filma

Kultur Leioa | Leioa

Perseo zineforumaren komedia-zikloaren barruan. Gaztelaraz. Sarrera: 2,50 euro.

Lamiako Maskarada dokumentala

Kultur Leioa | Leioa

Gonbidapenak (bi sarrera, pertsona bakoitzeko)

Kultur Leioako txarteldegian har daitezke. Aretoa bete arte.

2015/05/08 - ordua: 21:00

Leviatan filma, errusieraz

Andres Isasi musika-eskola | Getxo

Proiektzioa erusieraz izango da, gaztelaniazko azpituilekin, 12 urtetik gorakoentzat. Horren ostean, foruma egongo da. Sarrera: 2,90 euro.

LEIOA

Margolari gazteak, plaza eta kaleetara

Maiatzaren 10ean egingo dute Margolari Gazteen XVIII. Saria. 14 eta 35 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute. 800 eta 120 euro arteko sariak egongo dira irabazleentzat.

info+34 944 95 850 / gazte@leioa.net

GETXO

Maia eta Lujanbio, ALBERen urtemugan

ALBERen 35. urteurreneko ospakizunetan, bertso-afari tematikoa (80eko hamarkada) egongo da hilarren 8an Algortako Kasinoan. Izena eman dutenek Jon Maia eta Maialen Lujanbio entzuteko aukera izango dute.

GETXO

Lesagibelen lan abstraktuak ikusgai

Maiatzaren 8tik 31ra, Nafarroan bizituen 60. urteko Lesagibel baserritarraren *N-estetika* erakusketa ikusgai egongo da Algortako Torrene aretoan. Egurrezko estruktura abstraktuak egiten dituz artistak, egitura-mundu bat sortuz.

LEIOA

Margolari gazteak, plaza eta kaleetara

Maiatzaren 10ean egingo dute Margolari Gazteen XVIII. Saria. 14 eta 35 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute. 800 eta 120 euro arteko sariak egongo dira irabazleentzat.

info+34 944 95 850 / gazte@leioa.net

Erpurutxo antzezlan, Sopelan

Noiz: Maiatzak 10, domeka
Ordua: 18:00
Non: Kurtzio kultur etxea
Sarrera: Haurrek 3 euro, eta helduek 5 euro

SOPELA

Kabaret-giroa, oholtza gainera

Maiatzaren 9an, zapatua, *Lili y Marlene... en LOOP* antzezlan eskainiko dute La Dinamika eta Oh my God taldeek. Saioa 20:00etan izango da Kurtzio kultur etxean, eta sarrerak 6 euroan egongo dira. Komedia honen istorioari dagozkionez, hauxe: musikalak liluratu eta kabaretaren uhin berriagaz bat egin gura du Lili performanceko talentu gazteak (Eguzki Zubia); porrot egin duen vedettea ezagutuko du: Marlene (Leire Ucha).

LEIOA

Biolin-doinuek jantziko dituzte Maite Arreseren helduentzako ipuinak

Maiatzaren 7an, eguna, helduentzako ipuin musikatuak eskainiko dituzte Maite Arrese kontalariak eta Mau Ziemkiewicz biolin-jotzaileak. Saioa 18:00etan izango da Kultur Leioako hemerrotekan, sarrera doan. Hala ere, ezinbestekoa da izena ematea eta liburutegian gonbidapena jasotzea, antolatzaileek jakinarazi dutenez. Maite Arrese aktore, ipuin-kontalari eta yoga irakasle beasaingarrak, besteak beste, ETB1 telebista-kateko *Goenkale* telesaillean parte hartu du.

1

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

2

www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

Bizkaiko aktore amateurrek Berango Antzokia hartuko dute

Maiatzaren 9an Sopelako Itzartu taldearen ikuskizuna iragarrita bazegoen ere, Berango Antzokiagaz zerikusirik ez duten arrazoiengatik bestelako ikuskizuna eskainiko dute.



info+: www.berango.net © BERANGOKO UDALA

Bizkaiko bazter ugaritako aktore amateurrek etorriko dira Berangora. Izan ere, Berango Antzokiak Antzerki Amateurren Jaialdia hartuko du hilabete honetan, laugarren urtez. Hala, hilaren 9tik 31ra bitartean Bilbo, Derio eta Berangotik etorritako antzerki-taldeek jardungo dute bertan. Lehenengoak Bilboko Luna Llena taldekoak izango dira, hilaren 9an, zapatuagaz. Horiek *Amigas... ¿para siempre?* antzezlanak jokatuko dute taula gainean, Kepa Gallego zuzendariagaz; lan horren helburua da barrea eta hausnarketa sortzea. Hurrengoak Derioko Sutondoan taldekoak izango dira, Miguel Miura egilearen *La tetera* lana antzezteko, hilaren 16an, zapatuagaz. Komedia horretan, protagonista ezkonberriek bisitan joan zaizkien lagun biren opari bat jasoko dute: teontzi bat. Azkenik,

maiatzaren 31n, Berangoko Txirlo-ra-Acadae antzerki taldeak Iker Ibañezen *Las estrellas también brillan en otoño* ikuskizuna oholtzaratuko dute. Tragikomedia horretan, kupletista batzuek antzoki baten itxiera saihesteko ugazabaren aurrean antzeztu beharko dute. Azkenengo bi taldeak Fernando Ansoleagaren gidaritzapean jardungo dute. Ikuskizun guztiak arrastiko 19:00etan izango dira; 3 euroren truke.

Fernando Ansoleaga zuzendariak azaldu duenez, jardunaldi horien helburua jendea antzerkira zaletzea da. Era berean, antzerki amateurrek diren heinean, jendea antzerki-talde horietan parte hartzea animatzen du Ansoleagak, «talde guztietan parte hartu nahi duen jendea hartzeko zabalik gaude. Desinhibitze eta konplexuak kentzeko modu bat da antzerkian ibiltzea».

Lehoi txikiek amets egiteko ipuin-lehiaketa

Athletic Club Fundazioak eta Euskaltzaleen Topaguneak Lehoiak Ametsetan izeneko doako App-a sortu dute. Horretan, Kirmen Uribe idazlearen hainbat ipuin eta Asisko Urmenetaren ilustrazioak daude. Aipatutako ipuin horietan, Athletic Cluben historia eta balioak jorratzen dira, gurasoek umeakaz batera irakur ditzaten.

Horren albotik, ipuin-bilduma horretako azken ipuinak herritarrek idaztea gura dute antolatzaileek; horretarako, lehiaketa bat ipini dute martxan, 8 eta 18 urte arteko ikasleei zuzendu-

ta: gela bateko ikasle guztiek taldeka lan bat egin eta aurkeztu beharko dute. Lehiaketaren gaia «zelan bizi izan da Athletic Cluben final bat nire herrian?» izango da. Mota askotako formatuetan entrega daitezke lanak; posta bidez helarazi beharko dira hilaren 17a baino lehen; digitalki bidaliz gero DVD batean grabatu beharko da. Irabazten duen gelako ikasle guztiek eta irakasleak San Mamesera gonbidatuko dituzte partida bat ikustera. Halaber, lan horretan oinarrituko dira bildumako azken ipuina sortzeko. ◀

info+: www.lehoiakametsetan.com

Erabakitze eskubidea ulertzeko 3 ikuspuntu

Joste Egunaren eta ekainaren 21eko «Erabakia #ehuntzen» ekimen erraldoiaren nondik norakoak aurkezteko ekitaldia egin ostean, Andra Mariko kiroldegian, Getxoko Gure Esku Dago taldeak erabakitze eskubidea ulertzeko hiru modu mahai-gaineratuko ditu hiru emakumeren ikuspuntuetatik. Horretarako, Garbiñe Biurrun (Tolosa, 1960) epailea eta EHUKo irakaslea, Laura Mintegi (Lizarrar, 1955) idazlea, politikaria eta EHUKo irakaslea, eta Gemma Zabaleta (Donostia, 1957) PSE-EEko kidea gonbidatu dituzte erabakitze eskubi-



Arrastiko 08:00etan izango da mahai-ingurua

dearen inguruan euren esperientzien eta hausnarketan gainean jarduteko. Hitzordua arrastiko 08:00etan jarri dute, Algortako Fadura kiroldegian. ◀



aitxu!
sopelan euskeraz bizi



berba
lagun



LEHIAKETAREN EZAUGARRIAK

16 urtetik gorako edonork parte har dezake.

Testu bakoitza argazkietako batean egongo da oinarrituta, eta egileak adierazi beharko du zein den aukeratu duena (argazkiaren edo argazkilaria izenak idatzita).

Testuek euskaraz idatzita egon behar dute, euskara batuan edo edozein euskalkitan.

Edozein testu mota onartuko da (prosa, olerkia, bertsoa, haikua e.a.).

sms, whatsapp edo posta elektronikoz bidaliko dira testuak:
argi.hizkiak@gmail.com • 685 732 963

Bi kategoria izango ditu lehiaketak:

Labur-laburra: 160 karaktere gehienez

Laburra: 100 hitz gehienez.



ARGAZKIAK IKUSTEKO ETA LEHIAKETAREN OINARRIAK

www.argihizkiak.com
info+: argi.hizkiak@gmail.com
t: 685 732 963

www.argihizkiak.com

«Amodioaz abestu izan dugu hasieratik; itsututa gaude horregaz»

McEnroe boskote getxoztarrak kalean dauka *Rugen las flores* diskoa. Ekainaren 27an aurkeztuko dute Kafe Antzokian.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Plazaratu berri duten seigarren lanaren xehetasunak eman dizkigu Ricardo Lezon McEnroe musika-taldeko abeslari eta konpositoreak. Amodiozko 11 kantekek osatzen dute *Rugen las flores* diskoa (Subterfuge, 2015).

Zer aurkituko dugu kaleratu berri duen diskoan?

Zalantza barik orain arte egin dugun diskorik zuzenena eta gordinena da *Rugen las flores*. Entzuten baduzu, aretoren batean kontzertua ematen gaudela dirudi. Horrez gainera, nire ustez, egin ditugunetatik rock-estilo gehien eta lirika itogarri gutxien daukan lana da atera berri duguna.

Nahita egin duzue ala kasualitatez atera zaizue horrela?

Elkarrengandik urrun bizi gara taldekideok, kilometro askora kasu batzuetan, eta denak batzea zaila izaten da. Hala, aurreko diskoen grabaketekin alderatuta, ez nintzateke labur geratuko esango banu kanta gehiegi prestatu barik heldu ginela estudio-ara. Entseguetan grabatzea bezalakoa zen; grabatu ahala, amaitzen genituen abestiak. Gainera, zuzenean grabatzen genuen lehenengo aldia zen. Aurreko diskoetan banan-banan egin izan dugu: gitarra batetik, ahotsa bestetik... Oraingoan, oster, batera ibili gara grabatzen taldekide denak.



Maiatzaren 9an Madrilgo Ochoymedio klubean aurkeztuko dute diskoa. © SUBTERFUGE RECORDS

Lan honek 11 abesti dauzka. Zeri abestu diozue?

Amodioaren gainean berba egin dugu hasiera-hasieratik. Elkarregaz 13 urte daroatzagu McEnroe taldean, eta, egia esateko, ez dut uste beste gairen bati buruzko abestirik egin dugunik ordu-tik eta gaur artean; itsututa gaude horregaz. Kar, kar.

Nondik atera duzue diskoaren izenburua? Esangura berezia dauka?

Eduardo Elizalde (Mexiko Hiria, 1929) poetaren olerki batean oinarritu ginen izenburua jartzeko; *Recuerdo que el amor era una blanda furia* dauka izena. Batzuetan gertatzen da berba egokiak ez dituzula topatzen, gura duzuna esateko. Gizon honek, oster, bete-betea eman zuen. Eduardo Elizalderen olerkian aurkitu nituen abestiak idazteko behar nituen berbak.

Diskoaren azala ere ez da zuena...

Beti saiatu izan gara ezagutzen ditugun herriko sortzaileakaz jarduten,

“Eduardo Elizalderen olerkietan topatu ditut diskoaren kantetarako behar nituen berbak”

eta Naiara Goikoetxea aspaldi ezagutzen genuen. Buruan geneukana azaldu genion eta askatasun osoa eman. Berak ekarri zigun natura «orroka» erakusten duen irudi hori.

Lehen diskoa 2004an atera zenuten. Ordutik zertan aldatu da McEnroe?

Uf! Bada, egia esan, inoiz erantzuten jakin ez dudana galdera da hori. 13 urte daroatzagu elkarregaz, eta asko dela

ematen du. Baina, astero-astero entseguak egiteko batzen den talde horietako batez konparatuz gero, ez da horrenbeste. Gehienbat lan-kontuak direla eta, Getxotik alde egin behar izan dugu gutariko batzuek; eta ahal dugunean elkartzen gara entseatzeko: hiru hilabete behin, urtean birritan... Buruan ez dugu inoiz eduki nora goazen edo noraino heldu gura dugun. Bilakaerarik egon bada taldean, erabat naturala izan da. Hala ere, entzuten gaituenak esan beharko luke urte hauetan aldaketarik nabaritu duen.

Disko berria aurkezteko, behintzat, elkartu egingo zarete...

Bai. Madril eta Bartzelonatik igaro ostean, ekainaren 27an etxera bueltatuko gara. Bilboko Kafe Antzokian aurkeztuko dugu *Rugen las flores*. ◀

Lanak aurkezteko epea: **maiatzaren 15era arte**

argihizkiak

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO TESTU LABURREN IV. LEHIAKETA



Getxo Rugby: azkenera arte ahalegintzen

Getxo Rugbyko emakumeek egundoko denboraldia egin dute aurtengoan. Ohorezko Mailan txapeldunorde gelditu eta Euskal Liga irabazi dute.

Lan gogorra izan dute errugbilari hori-beltzek Espainiako Ohorezko Mailaren partidak Euskal Ligakoakaz tartekatzen. Talde zabala eta sendoa erakutsi dute denboraldi osoan, baina, halere, hamaika eta bi higadura fisiko sufritu dute; batez ere, Ohorezko txapelaren atzean. Izan ere, Euskal Liga matematikoki irabazi zuen Getxo Rugbyk azken bi partidak jokatu aurretik.

2001eko eta 2008ko Erreginaren kopak gordetzen dituzte Fadurako instalazioetan, baina txapelketa berria sortu zenetik Euskariansek lortuta-

ko hirugarren postua zen eskualdeko markarik onena. Pasa den aste akabuan, Gijonen Coruñaiko Crat-en aurka galduta ere, txapeldunorde izatea lortu dute getxoztarrek, eta baita hirugarren aldian ospatu ere. Asturiasen jokaturako dema, hain zuzen, Getxok Faduran 20-5 irabazi zuen txapelketa-ko lehenengo partidaren buelta izan zen, galiziarrek erabateko garaipena lortu zuten, 39-5 aise nagusituta.

Gijoneko partida

Uribekostarrek lehenengo ordu erdian eutsi zioten, jokoa berdinduta egon



CRATeko jokalariek Fadurako partidaren errebantxa hartu zuten Gijonen. © DIEGO DOLAN

zen bitartean, zelai erdia gudu-eremu bihurtuta. Baina coruñarren hiru jokaldi nahikoa izan ziren markagailua 17-0 jartzeko. Getxoko aurrelariak hobeto moldatu baziren ere, lehenengo aldian ez zuten entsegurik gauzatu; galiziarrek lau egin zituzten, ordea. Bigarren aldiaren hasieran ere, Cratek beste zazpi puntu batu zituen transformazio batean. Getxok erantzun zuen Barbararen entsegu bat zela medio, baina, azkenean, zuri-beltzek partida bukatuta utzi zuten, beste bi jokalditan. 39-5 irabazita, galiziarrek Getxoren kiroltasuna goretsi zuten.

Euskarians-Uruguai

Baina errugbia, azken egunotan, ez da jokatu Asturiasen bakarrik. Pasa den martitzenean, Euskarians Euskal Herriko 20 urtez azpiko gizonezko konbinatuak norgehiagoka historikoa izan zuen Faduran, adin bereko Uruguai taldearen kontra. Izan ere, Uruguai Hego Ameriketako selekzioa B mailako Munduko Txapelketa prestatzen dabil Euskal Herrian. Euskal Herriarrek 7-36 galdu zuten; partidaren aurretik entrenamendu bakar bat egin zuten... Getxoko Jon Zabalak eta Daniel Gutierrezek jokatu zuten. ◀

Javier Otxoa klasika egingo dute zapatuan

Punta Galea txirrindulari-elkar-teak antolatuta, zapatu hone-tan, hilak 9, Javier Otxoa klasika Punta Galea XXX. Randonee martxa zikloturista ez lehiakorra egingo da. Izen-ematea Fadurako frontoietan egin ahal izango da, aurreko egunean, arrastiko 05:00etatik 08:00etara; eta egunean bertan, leku berean, goizeko 07:30etik aurrera. Horretarako, federatuek lizentzia eroan beharko dute eta federatu bako zikloturistek egun horretarako behin-behineko aseguru-lortu ahal dute izena ematean. Horrez gainera, parte hartu gura dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte; eta aseguru eskatzen dutenek beste 10 euro gehiago. Halere, ordainketa ezin izango da bertan egin, diru-sarerra aldeztu aurretik egin beharra dagoelako Laboral Kutxan, eta hor ematen duten egiaztagiria izango da izen-ematean aurkeztu beharrekoa. Ibil-bidea goizeko 09:00etan abiatuko da,

100 kilometro egiteko. Besteak beste, Asua, Larrabetzu, Aretxabala gaina eta Gernika igaroko dituzte Mundako-ko anoa-postura heldu aurretik; ondoren, indarrak batzeko beste aukera bat izango dute Sollube gainean, Markaida eta Andrakako azken aldatsak igo aurretik. Horiek pasatuta, Urdulizen Faduraranzko bidea hartuko dute.

Auto batek hondatutako bizitzak

Javier Otxoa Palacios txirrindulari berangoztarraren omenez antolatzen da lasterketa. Otxoak 40 urte ditu, eta, gaur egun, kirolari paralinpiko ospetsua da. Txikitatik Punta Galea txirrindularitza-elkartean jarduna, Tourreko etapa bat irabazi zuen 2000. urtean. Zoritxarrez, 2001ean auto batek bera eta Ricardo anaia harrapatu zituen. Ricardo hil zen eta Javierrek garun-paralisia pairatu du ordutik. ◀

Info+: Puntagalea.com
puntagalea@puntagalea.com

Virginia Diaz arraunlariak Florida estatuko txapeldun unibertsitarioa izatea lortu du

Areetako Raspas arraun-elkarteko Virginia Diaz kirolaria AEBetako Florida estatuko txapeldun unibertsitario bihurtu da, 8+ modalitatean. Diaz olinpiar arrauneko Espainiako Txapelketa prestatzen dabil Estatu Batuetan, ekainaren amaieran Sevillan jokatu baita. Zeregin horretan, urta-

riletik daroa Florida estatuan, Miami-ko Barry unibertsitatean, ikasketa-beka bat baliatuta. Diaz unibertsitateko liga-txapelketan dabil eta lehenengo postuan dago sailkatuta, bere taldeki-deakaz. Barikuan AEBetako estropada nagusietako batean lehiatuko da, Fildelfian. ◀

Bizkaiko eskolarteko hondartzaboleiboleko jokoak, Ereagan ikusgai

Zapatuan, hilak 9, Eskolarteko Hondartzako Boleibolaren XV. Txapelketaz gozatzeko aukera izango da Algortako Ereaga hondartzan. Goizeko 10:00etatik 13:00etara, 21 tantoko partidak jokatu dituzte, ligaxkan. Parte hartzeko, aurretik izena eman beharra dago Bilboko Kirol Etxean. Hurrengo saioa Plentzian izango da. ◀

Info+: 656 783 907



Ekainaren 13ra arte sei txapelketa izango dira.

Campusa, betetzear



Campusa Mungiako Larramendi ikastolan egingo dute. © BERANGO ESKUBALOIA

U ribe Eskubaloia Eskolak orain aste batzuk zabaldu zuen udako campuserako izen-ematea; aurten zazpigarren edizioa beteko du campusak. Bertako partaidea den Berango Eskubaloia taldeak ohartarazi duenez, lehenengo txanda guztiz bete da, eta, hortaz, oraingoz gelditzen diren lekuak uztailaren 13tik 19rako eperako dira. Gehiezez jota, 20 plaza daude.

Campusa Mungiako Larramendi ikastolan egingo dute eta bertan 1997 eta 2004 artean jaiotako neska-mutilek parte hartu ahal izango dute. Eskubaloian egiteaz gain, gazteek elitezko jokalaririk profesionalak ezagutu eta jagole kualifikatuak makina bat kirol praktikatu, gaubelak antolatu, hondartzara joan eta ondo pasatzeko aukera izango dute. Egonaldiak, mantenu osoz, 375 euroko kostua dauka. Izen-emateak eskolaren webgunean egin daitezke. ◀

Info+: Urduliz.com/campus-uribe-2015
692 705 161 (Asier)

Domekan krosa, Sahararen alde

Sahararen aldeko IX. Herri Krosa izango da domekan, hilak 10. Aljeriako Tindufeko kanpamenduetako errefuxiatuen aldekoa da lasterketa. Ohi bezala, antolatzaileak dira ATFAL Getxoko Sahararen aldeko Getxoko elkarte eta Getxo Atletismo Kluba, beste erakunde batzuen artean, Udaren laguntzagaz. Abiapuntua eta helmuga Ereagako hondartzan izango da.

15 urtetik gorako korrikalariak 11:10ean aterako dira, 8 kilometroko ibilbidea egiteko: Ereagatik Portu Zaharrera, atzera Ereagara, handik Bizkaiko Zubira, eta bukaera, Ereagan. 11 eta 14 urte bitarteko neska-mutillak 10:55ean aterako dira eta 1.500 metro izango dituzte aurrean. Azkenik, 10 urte arteko txikiak 10:45ean aterako dira, 600 metro egiteko. Izen-ematea bost eurokoa da; Algortako Torrene kaleko Kantxa Kirol Moda dendan zein Bilboko Bikila kirol-dendan egin daiteke. Berantiarrek lasterketa hasi baino 20 minutu lehenago ere inskribatzeko aukera izango dute. ◀



Goiherri taldeak 580 kiloko kategorian brontzezko domina lortu zuen Wisconsinen. © GONTZAL GARATE

Munduko Sokatira Txapelketa Getxon, 2020an

Getxok hartuko du 2020ko irailan Munduko Lur Gaineko Sokatira Txapelketa. Horrela erabaki berri da Suediako Malmö hirian egindako Sokatirako Nazioarteko Federazioaren kongresuan. Bertan, Getxo nagusitu zitzaion Suitzako eta Herbehereetako federazioek proposaturiko egoitzei. Bilbok, bere aldetik, 2018ko Indoor kategoriako txapelketa

hartzeko proposamena aurkeztu zuen, baina Txinak aurkeztutako proiektutik boto bira gelditu zen.

Lehenengo Munduko Txapelketa

Iaz, sokatiralari euskal herritarrek sei domina lortu zituzten AEBetako Wisconsin estatuan egin zen Munduko Txapelketan. Taldekako lehiaketan lau lortu zituzten, eta beste biak,

lehenengo aldiz estreinatu zen *Basque Country* selekzioaren izenean. Hala, Erandioko Goiherri taldea 580 kiloko gizonezkoen kategorian lehiatu zen, euskal selekzioaren izenean, eta brontzezko garaikurra ekarri zuen. Hortaz, 2020an selekzioak berriz jokatu du, etxean gainera, eta zaleen babesa jasotzeko aukera izango du. Jone Zarraga Goiherri taldeko kide eta Herri Ki-

roletako Euskal Federazioko sokatira arduradunak defendatu zituen Getxoren zein Bilboren hautagaitzak.

Sopelan, domekan

Baina zaleek ez dituzte bost urte itxarongo kalitatezko sokatira-lehiak ikusteko, adib.: domekan, Sopelako udal-txeko plazak Lur Gaineko 4x4 sokatira txapelketa hartuko du, 12:00etan. ◀

Kantxa
kirol moda
URIBE KOSTAKO KIROL DENDA



Torrene 4
ALGORTAKO AZOKA
TF. 94 491 18 82
info@kantxa.eu
www.kantxa.eu

Denboraldi amaiera sutsua Erandion

Erandioko Kirol Elkartearen taldeak denboraldia ixten dabiltzala; sailkapenak, hauteskundeak, 100. urteurrena eta Ategorri dira protagonistak.

Erandioko Kirol Elkartearen talde nagusia, Ligako Hirugarren Mailakoa, suspense handia jartzen dabil denboraldiaren amaierari. Oskar Tabuenkaren mutilek urte kaxkarra bizi izan dute, baina azken unera arte matematikei eta esperantzari eusteko gogoia erakusten dabilta. 18. postuan eta 31 puntugaz, gaur egun jaitsiko lirateke, baina haien aurretik dagoen Pasaiak falta zaizkion partida biak galduko balitu, zuri-urдинek maila gordeko lukete, euren norgehiagokak irabaziz gero. Beraz, partida bakoi-tza final bat bezalakoa izango da.

Tartean, domeka honetan eskualdeko derbia jokatu du promozio-postuetan dabilen Arenasen aurka. Tentsio handiko dema izango da, au-

rreko egunean Pasaiak irabazi ezean. Bitartean, Erandio Bk urteurrena ospatzeko moduko alaitasuna ekarri dio klubari. Ez du Erregionaleko Hirugarren maila irabazi, baina txapeldunorde gisa, Erregionaleko Bigarren kategoriarako txartela eskuratu du.

Urteurreneko DVDA

Poztasunagaz jarraituz, barikuan, hilak 8, urteurrenerako sortutako batzordeak beste ekimen bat eskainiko die erandioztarrei: Erandio Kirol Elkartearen historia laburbiltzen duen bideoa aurkeztuko dute. Hitzordua Tartanga Lanbide Heziketarako institutuan jarri dute, arrastiko 19:00etan. Izan ere, bertako ikus-entzunezko irakasleek eta ikasleek ekoitzi dute



400 bat bazkide ditu gaur egun Erandio Kirol Elkartek.

bideoa, Mendeurrenaren Aldeko Batzordeagaz batera. Ekitaldian, klubeko eskolako umeei ale bana oparituko diete. Bazkideek, berriz, Obieta kaleko erakusketa-gelan jaso ahal izango dute. Ekimena biribiltzeko, Athletic-ek baieztatu du ordezkaritza bidaliko duela. Erandioko Kirol Elkartearen arabera, "hainbat jokalaria eta jokalaria ohi agertzea espero" dute.

Ategorri futbol-zelaia

Klubaren aspaldiko aldarrikapena da Ategorri futbol-zelaia Udalari utzi ahal izatea, erakunde hori mantentze-gastuez ardura dadin eta erabilpen handiagoa eman diezaion. Mendeurrenaren harira, Udal Gobernuarekiko negoziazioak indartzen ahalegindu da

kluba, baina pasa den astean legealdia amaierara heldu zen akordio barrik. Kirol-elkartek larrialdiko eskaera sartu zuen udal erregistroan, zelaia-zen uztearena Udalbatzak eztabaidatu eta behingoz erabaki zezan. Eguenean egin zen legealdiko azken udal bilkuran PSE-EEK testu hori ekarri zuen, urgentzia legez, eta EH Bildu eztabaidatzeko prest agertu zen. Halere, EAJk eta PPK gai zerrendatik kanpo mantendu zuten, larrialdia ez zelakoan. Joseba Goikouria alkateak hitzarmenak "tentuz" aztertzeraz deitu zuen, bazkide zuri-urдин batzuen protesten artean. Azkenik, klubeko zuzendaritzak agintaldia amaituta, taldeak hauteskundeak deitu ditu eguaztenerako, hilak 13. ◀



Erandioren eta Leioaren arteko derbi bat. © LEIOAKO KIROL ELKARTEA

Bizkerre, Leioa eta Betiko, Euskal Kopan

Uribe Kostako hiru talde lehiatuko dira maiatzan eta ekainean Euskal Futbol Federazioak antolatutako Euskal Koparen XX. edizioan. Federazioak zabaldu duenez, sailkapenen arabera Leioako Emakumeak, Bizkerre eta Erandioko Betiko Neskak dira txapelketarako sailkatutakoak. Gainera, loteria-ontziak erabaki duenez, aurretiko fasea ez dute jokatu beharko, eta, zuzenean, final zortzietan hasiko dira.

Erandio-Athletic B

Maiatzaren 17an jokatu dira parti-

dak, hala nola: Leioako Emakumeak, Paularren aurka; Bizkerre, Abantoren kontra; eta, zailena ematen duena, Erandioko Betiko Neskak, Athleticen aurrean. Halere, sailkapena ez da partida bakarrera jokatu, buelta ere izango baita. Final laurdenak maiatzaren 27an eta 31n izango dituzte irabazleek. Bertatik finalaurrekoetara igaroz gero, Bizkerre eta Erandioren emakumeek derbia jokatu lukete. Partida horiek ekainaren 7an eta 14an izango dira, finala partida bakarrean ekainaren 20an jokatu da. ◀

Info+: eff-fvf.org

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.saiaszgetaria.com



fugu
mult trak euzk & euzk
Bait futea eginen juposier eta tradizioarekin
www.fugufutena.com
Erandio Chumua Kalea 2 (lons) - Bickia Zubia erantzita - Aveia - GETXO
944 808 796
Bisaketa ofiziala Getxo eta Leioa

Horoskopoa



Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Planifikatu lasai zuk dakizun bidaia hori, eguraldiaz kezkatu barik. Oso giro egokian ibiliko zara eta primeran pasatuko duzu.



Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Lagunakaz biltzeko ahaleginetan zabilta eta dena zure erara egokitzen doa. Horrela jarraituz gero, espero baino denbora gehiago lortuko duzu.



Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Badaezpada, hartu bainujantzia eta gorde beste gauzen artean. Azkenean joango zaren lekuan ondo etorriko zaizu.



Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

A taldeko Hannibal-i legez, zuri ere gustatzen zaizu planak ondo amaitzea. Ez izan zalantzarik, esku artean duzun hori ederto joango da.



Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Zenbait saiakeraren ostean, akabuan zure gustuko lanen bat helduko zaizu. Ez dizute merezi duzuna ordainduko, baina pozik joango zara beharrera.



Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Maite dituzu lagunak; beti dakarte zeozer berria eta gehien-gehienetan interesgarria, gainera. Hasi haiantzako ezustekoren bat prestatzen.



Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Bizitza patxadaz hartzea erabaki duzu, eta, oraingoz, jokaldia ondo irten zaizu. Estresa hutsaren hurrengoko mailan duzu.



Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Azkenaldian, ezagun batzuk hurbildu zaizkizu eta gora eta behera dabilta zugaz. Beren berbei jaramonik ez egin, lausenguak dira-eta.



Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Negu-udaberriko birusak igarota, osasuntsu zabilta berriro ere. Ez kezkatu gehiago, luze ibiliko zara horrela.



Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Gogoratzen ez zenuen dirutxo bat topatuko duzu arropan ahaztuta. Lehen bezain zurea izango da, baina ilusioa egingo dizu.



Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Ikasturtea bukatzeaz dago; eskualdeko jaien maratona, berriz, hastear. Konbinazio ederra izango da zuretzat, dena bere unean eta txukun amaituz gero.



Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Domekan Herri Urratsa duzu zain. Hurbildu Senpereko lakura, eta ez zara damutuko. Barre franko egingo duzu, besteak beste.

Sudokua

			8	3		1		6
3	8							4
				6				
	6	3				9		
		5	3					
1				9	4			
				1			5	
		4	2		6		9	
8	1					2		

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe,ilara eta azpilauki bakoitzean.

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



SARIA

Korrontziren & BOS-en *Symphonic Bilbon* diskoaren aleak zozketatuko ditugu

Helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337



Soluzioa

7	9	2	8	4	5	6	1	8
1	6	8	9	7	2	4	3	5
3	5	4	8	1	6	2	7	9
5	3	7	4	6	9	8	2	1
2	4	9	1	8	3	5	6	7
8	1	6	2	5	7	3	9	4
6	8	3	7	9	4	1	5	2
4	7	5	6	2	1	9	8	3
9	2	1	5	3	8	7	4	6

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZAILE izanda:

- Pertsona Juridikoak: 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- Norbanakoak: 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- Pertsona Juridikoak: 200 € + Urteko kuota : 33 €
- Norbanakoak: 50 € + Urteko kuota : 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

☐ Bazkide Erabiltzailea

☐ Bazkide Laguntzailea

Hiruka laguna

☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____ €

Izena NA

Abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea Telefonoa

E-posta

Kontu korrante zenbakia




Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKA emandako datuak fixategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzailearen harremanetan jaritzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikazioa helarazteko. Erabiltzaileek datuak erabiltzeko aurreko baimenaren behar du. Erabiltzaileek ezin dute datuak beste laguntzaileei edo beste laguntzaileei bidaltzea erabaki. Erabiltzaileek ezin dute datuak beste laguntzaileei edo beste laguntzaileei bidaltzea erabaki. Erabiltzaileek ezin dute datuak beste laguntzaileei edo beste laguntzaileei bidaltzea erabaki. Erabiltzaileek ezin dute datuak beste laguntzaileei edo beste laguntzaileei bidaltzea erabaki.

2015 Udal eta Foru Hauteskundeak Uribe Kostan

Hauteskundeak ate joka daude, bariku honetan abiatuko baita maiatzaren 24ko udal eta foru hauteskundeen kanpaina ofiziala. Uribe Kostako 171.183 biztanleetatik 134.467 herritarrek bozkatu ahalko dute Batzar Nagusietarako, eta beste 561 gehiagok, udal hauteskundeetan. Guztira, 13 batzarkide eta 150 zinegotzi aukeratuko dituzte.

2015eko foru-hauteskundeetarako zerrendaburuak, Busturia-Uribe barrutian

									
UNAI REMENTERIA MAIZ Foru-diputatua EAJ	JOSU UNANUE ASTOREKA Alkateordea, Bermeon EH Bildu	JAVIER RUIZ EGAÑA Zinegotzia, Getxon PP	JUAN OTERMIN ERASO Zinegotzia, Leioan PSE-EE	AITOR URRESTI GONZALEZ Irakaslea Irabazi	ELSA PANPARACUATRO MERCHAN Aktorea Ahal Dugu	AINHOA URRUTIA AZKUE Administraria PACMA	LUIS IGNACIO BAQUERO FERNANDEZ Jubilatua UPyD	SANTIAGO OROZCO GARCIA Hautagaia, Bilbon Ciudadanos	RAFAEL PRESEÑCIO URETA Gerentea Vox-PFyV

Egutegia

Maiatzak 8, barikua

00:00 Hauteskunde-kanpainaren hasiera.

Maiatzak 14, eguna

Posta bidezko botoa eskatzeko azken eguna.

Maiatzak 22, barikua

24:00 Hauteskunde-kanpainaren akabua.

Maiatzak 23, zapatua

Hausnarketa eguna.

Maiatzak 24, domeka

09:00-20:00 Udal eta foru Hauteskundeak.

Ekainak 13, zapatua


Udalen osatzea eta alkateen izendapena (Hauteskunde-azirik egotekotan, uztailaren 3ra atzeratuko da).

Ekainaren 2. hamabostaldian

Bizkaiko Batzar Nagusien osatzea. Diputatu Nagusia uztailaren 13a baino lehen aukeratu beharko dute.


Uribe Kostako Foru botoak

2011



Bizkaiko eserlekuak

2011



Ezkerraren eta eskumaren atomizazioek baldintza dezakete foru-ordezkaritza

Uribekostarrek Bizkaiko Batzar Nagusietako 51 eserlekuetatik 13 bozkatu ahal izango dituzte Busturia-Uribe barrutiaren barruan. Eremu hori Lea-Artibai, Busturialde, Mungialde eta Txorierriko biztanleakaz partekatzen dute. Aurreko hauteskundeetan, barrutiak gehiengo zabala eman zion EAJri (62.165 boto), Bilduri (43.992) tarte handia hartuta. PPK eta PSE-EEK ordezkariak lortu zuten, baina aurreko bietatik nahiko urrun. 2011n, PSE-EEtik ezke-

rrera kokatutako alderdiek ez zuten eserlekurik lortu, bakoitza bere aldetik aurkeztuta 10.000 boto batu ezinik gelditu zirelako guztiak. Hori berriro gerta daiteke aurtan, baina ezkerrean ez ezik, eskuman ere bai. Izan ere, zortzi dira Espainia mailako proiektuak defendatzen dituzten hautagaitzak, eta kala berberetan egin behar dute arrantzan. Bestalde, PPri eta PSE-EEri inkestek ematen dieten beheranzko joeragaz ez da erraza emaitza aurreikustea. ◀

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Guztira, 63 udal zerrenda aurkeztu dira udal hauteskundeetan Uribe Kostan. Udalerrri lehiatsuenak Getxo eta Leioa izango dira, bertan zortzina hautagaitza izango baitira bozkatzeko. Beste aldean Lemoiz izango da, hiru aukera besterik ez baitituzte izango han erroldatutako 965 hautesleek. 2011n, lau boto-paper izan ziren Lemoizen, baina sozialistek hiru boto besterik ez zutenez atera, aurtan ez dira berriro aurkeztu. Eremu abertzalean, EAJk eskualdean duen abantaila zabalari eutsi gura dio, eta gaur egun erabateko hegemoniarako falta zaizkion Sopela eta Plentziako udalak berreskuratu gura ditu. Horretarako, alkate gehienak ostera ere aurkeztu ditu, eta hainbat lekutan hautagai berriak proposatu. EH Bilduk, bere aldetik, orain dela lau urte lortutako Sopelako alkatetzari eta Bilduk ereindako boto uholdeari eutsi gura die, Aralarrek izan zituen 2.000 sufragio eskas horiek ihes egiten utzi barik.

Aldaketa asko

Hautagaitza independenteetan eta Espainia mailako ezkerrean eta eskumaren proposamenetan aldaketa nabarmenenak izango dira. Lehenengo aldiz, Getxo, Gorliz eta Plentziako independenteak Ikune elkartearen babespean lehiatuko dira. Gorliz

eta Plentzia mailako ekitaldi batzuk egin dituzte da-borduko. Hortik landa, iBarrikak eta Gorlizen aldeko auzotarrek ere parte hartuko dute hauteskundeetan. Bestalde, Europar Legebiltzarrerako hauteskundeetan gertatu legez, Espainiako eskumako, eta, batez ere, ezkerreko alderdien eklosioa gurera ere heldu da. PPK Getxon baino ez du izango arerio gehiago, bertan Vox eta Ciudadanos batuko zaizkiolako UPyDren ohiko hautagaitzari. PSE-EEk, ordea, hizki-zopa izango du bere ezkerrean. Ezker Batua eta Berdeak alderdien oinordetza aldarrika deza-

Eskualdean duen abantailari eutsi zein falta zaizkion Sopela eta Plentziako udalak berreskuratu gura ditu EAJk


keen Irabazi koalizioaz gainera, Ahal Dugu-rengandik (Podemos) sortu diren hautagaitzak ere esparru berean kokatuko dira: Denok Batera, Esnatu Leioa, GUK eta Orain. Azkenik, POSI-k, Aulki Zuriak-ek eta Equo-k ere ezkerreko botoak erakarriko dituzte. Gehiengoak lortzen duten alderdiak saritzen dituen D’Hondt Legeak eta botoen %5eko langak hainbat hautagaitzaren aukerak murriztuko dituzte. ◀

Leienda

- EAJ
- EH Bildu (Bildu, Aralar)
- PP
- PSE
- Irabazi (Equo, EB-B, Berdeak)
- Ikune (GIG, A.E.I. Plentzia, IG-GI)
- Podemos-ek sustatutakoak (Denok Batera, Ganemos Erandio, Esnatu Leioa)
- GUK (Podemos, Irabazi, Ikune Getxon)
- Besteak (iBarrika, PUM+J, UPyD, PSyV, EKA, Orain Sopela, Orain Barrika, Orain Gorliz, Aulki Zuriak, Ciudadanos, Vox, AVXG, POSI)
- Zuriak eta baliogabeak

Uribe Kostako botoak udal hauteskundeetan

2011



Uribe Kostako zinegotziak


2011




150 ZINEGOTZI

Eskualdeko Udal Gobernuen mapa


- EAJren gehiengo osoa
- EAJren gehiengo arrunta
- BILDUren gehiengo arrunta
- INDEPENDENTEen gehiengo arrunta





Barrikoztar bakoitzaren botoa urrezkoa da

Ozta-ozta nagusitu zen EAJ Barrikan 2011n. Juan Jose Ezpeleta alkate jeltzale ohiak hautagaitza propioa aurkeztu zuen, eta EAJko Juan Jose Madariagak 263 boto eskasegiz irabazi zion alkatetza Bilduri (262). Legealdian, berriz, Ezpeletaren iBarrika taldeak zein Bilduk zinegotzi bana galdu zuten, Julia Romero eta Heri Lago-Lekue. Biak Orain Barrikaren zerrendaburuak dira aurten. ◀



Oposizioaren arabera Udal Gobernua

Landak aise irabazi zuen 2011. Lurtean; 1.176 botogaz, Bilduk baino 171 gehiago. Halere, EAJk ilegalizazio garaian, 2003an eta 2007an, izandako gehiengo osoa utzi zuen bidean. Horrek, baina, ez zion trabarik sortu, PPren eta Bilduren arteko ezinegona agerikoa baita. Ikusteko dago popularrek eutsiko dioten, baita Ezker Anitzak ere. 2011n, 8 botoengatik eutsi zion Koldo Martinezek. ◀




Sinonimoak ez dira gauza bera izaten

Ezkerreko boto-emaleek zaila izango dute nor saritu behar duten jakitea. Ahal Duguk (Podemos) Ganemos Erandio bultzatu du; Ezker Anitzak, Equok eta ARK, berriz, Irabazi Erandio; eta EH Bilduk «Erandioztarrok garaile» goiburu darrabil. Bestalde, Ezker Batuak zinegotzi bat izateko botoak lortu zituen 2011n. Baina %5era heldu ezinik, ez zen banaketan sartu. Berriz gerta daiteke. ◀



Marisa Arrue ordezkatzeko zeregin zaila

Imanol Landa alkate jeltzaleak hirugarren agintaldi baterako eskaini du bere burua; eta litekeena da getxoztarrek onartzea. Botereak eragindako higadura izan dezakeen arren, Landa popularren egoeragaz kontsola daiteke. Espainia mailako beherakadari ez ezik, Ciudadanosen eta Voxen eraginari zein Marisa Arruek utzitako hutsuneari ere erantzun beharko die Iñaki Gamero. ◀



Alkatetza kolokan jar dezakete alderdi berriek

Arantza Etxebarriak Gorliz jeltzaleentzat berreskuratu zuen 2011n. Izan ere, Talde Independentea eta Bildu ez ziren udalerrri-proiektuaren inguruan ados jarri. Hilaren 24an, oreka hori alda liteke, aurkeztu diren hautagaitza berri biek gutxienezko boto-kopurua lortuko balute: Orain Gorliz, Ahal Dugu (Podemos) alderdiko Javier Viejo buru duena, geta Gorliz alderdi auzokide-elkartea. ◀

Alkategaiak 2015



ROBERTO MUÑOZ GARCIA
Zinegotzi ohia
EAJ



ASIER GARCIA ZABALA
Zinegotzia
EH Bildu



LUIS ENRIQUE ECHAVE-SUSTAETA ECHEVARRIA
Zinegotzi ohia
PP



EUGENIA GUEZURAGA CAREAGA
PSE-EE



MARIA AMAYA CUERNOS LAGOS
Equo



JUAN JOSE EZPELETA PEREZ
Alkate ohia eta zinegotzia
iBarrika



HERI LAGO-LEKUE FERNANDEZ
Zinegotzia
Orain Barrika

Alkategaiak 2015



ANABEL LANDA GAUBEKA
Alkatea
EAJ



MIREN EDURNE AURREKOETXEA PEREDA
EH Bildu



MARIA DOLORES MALO DE MOLINA DE LA RIVA
Zinegotzia
PP



NEREA JIMENEZ FERNANDEZ
Zinegotzi ohia
PSE-EE



KOLDO ENDIKA MARTINEZ GONZALEZ
Zinegotzia
Irabazi



EMILIO LOBATO PASCUAL
Denok
Batera

Alkategaiak 2015



JOSEBA GOIKOURIA ZARRAGA
Alkatea
EAJ



ANA ISABEL CRESPO HURTADO
Zinegotzi ohia
EH Bildu



AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ
Zinegotzia
PP



ELENA PEREZ BARREDO
Sailburu ohia
PSE-EE



GAIZKA ROMERO MARTIN
Irabazi



RAFAEL VAQUERO GONZALEZ
Ganemos



AGER AGUIRRE ZUBILLAGA
Aulki Zuriak

Alkategaiak 2015



IMANOL LANDA JAUREGI
Alkatea
EAJ



ARANTXA GUTIERREZ PAZ
Zinegotzia
EH Bildu



IÑAKI GAMERO DELGADO
Zinegotzia
PP




JOSE LUIS LANDA ARTECHE «TXEFO»
Zinegotzi ohia
PSE-EE



PAULA AMIEVA CLEMENTE
GUK



ASCENSION VIGURI
AXPE
UPyD



SANTIAGO SAINZ ROBLES
Ciudadanos



RODRIGO VILLALONGA ELORZA
Vox-PFyV

Alkategaiak 2015



ARANTZA ETXEBARRIA VILLABEITIA
Alkatea
EAJ



GABI DE LA MAZA ALONSO
Zinegotzi ohia
EH Bildu




JUAN LUIS EGUILUZ BORDE
Zinegotzi ohia,
Getxon
PP



EIDER GARDIAZABAL RUBIAL
Europarlamentaria
PSE-EE




MARI CARMEN BASABE IRUSTA
Zinegotzia
Gorlizko Ind.



JAVIER VIEJO MARRUEDO
Orain Gorliz




MARI MAR PEÑA MARTIN
AVXG




Mari Carmen Urbietaren boto-bataioa

Alkate bada ere, Mari Carmen Urbietak Gonzalez mediku jeltzalea ez da oraindino zerrendaburu legez lehiatu hauteskundeetan. Izan ere, Eneko Arruebarrenak Metro Bilbao zuzentzera joan aurretik, orain dela urte bi, utzi zion agintari makila Urbietari. Bestalde, Irabazi, Esnatu Leioa, POSI eta Aulki Zuriak hautagaitzek ere Udalean leku bat lortzeko lehian jardungo dute. ◀




Partida biren artean baino ez da jokatu

Hiruizango dira datorren maiatzaren 24an lemoiztarrek hautetsontzietan sartu ahal izango dituzten boto-paperekin. Halere, 2011n bi izan ziren zinegotziak lortu zituzten alderdiak: EAJ (346 boto eta 5 zinegotzi) eta Bildu (255 eta 4). PPK hamar boto besterik ez zituen batu, eta PSE-EEk, hiru. Aste bi barru, emaitzan auzotar berriekin zein eragina izango duten, ordea, ikusteko dago. ◀




Lau urte pasatuta, non egongo dira sei boto horiek?

Isabel Zarauzak Plentziako Alkatetzari eutsi zion 2011n, urdinek jeltzaleei hautetsontzietan atera zizkieten, sei botoei esker. Bildu batzuk zein besteak sostengatuko ez zituela azaldu ondoren, independenteen eta jeltzaleen arteko Udal Gobernua osatu zen, Zarauzak EAJri udal arloak kendu arte. Udal Gobernua apurtu ondoren, garraztu egin zen itsas hiri-bilduaren giro politikoa. ◀



Uribe Kostako ezkerreko udalerrri bakarra

Sopelakoa da eskualdean ezkerreko orain arte lortu duen Udal Gobernu bakarra. 2011n, Batzar Nagusietarako lehian ez bezala, udal hauteskundeetan Bildu nagusitu egin zitzaion EAJri. Jeltzaleek baztertu zuten alderdi espainiarrakaz Udal Gobernua osatzea, eta Bilduk gobernatu zuen. Aurten egoera aldatu dela dirudi. Bitartean, Ahal Duguren kideak bi zerrendatan lehiatuko dira. ◀



Jeltzaleen gehiengoa osa daiteke

EAJk eta Bilduk zinegotzitan berdindu egin zuten 2011ko hauteskundeetan. Javier Bilbaoren zerrendak 831 boto eta bost zinegotzi lortu zituen, eta Bilduk, 706 boto eta zinegotzi kopuru bera. Berdinke-ta PSE-EEko zinegotziak apurtu ohi izan du, jeltzaleen alde. Orain, Ahal Duguk (Podemos) bultzatutako Denok Batera hautagaitzak alda lezake egoera, EAJren aurka zein alde. ◀

Alkategaiak 2015



MARI CARMEN URBIETA GONZALEZ
Alkatea
EAJ



ARKAITZ FULLAONDO ELORDUI
-ZAPATARIETXE
Zinegotzia
EH Bildu



XABIER OLABARRIETA ARNAIZ
Zinegotzia
PP



JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES
Zinegotzia
PSE-EE



CESAR MERINO URIONDO
Irabazi



RUBEN BELANDIA FRAEJAS
Zinegotzi ohia
Esnatu Leioa



JESUS MARI PEREZ MARTINEZ
POSI



MARIA CRISTINA SALDAÑA GALINDEZ
Aulki Zuriak

Alkategaiak 2015



UNAI ANDRAKA CASIMIRO
Alkatea
EAJ



TASIO OLABARRIETA GOIRI
EH Bildu



JESUS FEDERICO RODRIGO RODRIGUEZ
PP

Alkategaiak 2015



ELIXABETE URIBARRIARTE
Zinegotzia
EAJ



DAVID CRESTELO DOMINGUEZ
Zinegotzia
EH Bildu



ASIER ECHEVARRIA FLORES
PP



EKAIN RICO LEZAMA
PSE-EE



KELTSE MACIAS ZARRAGA
Zinegotzi ohia
Plentziako I.

Alkategaiak 2015



GONTZAL HERMOSILLA RAMOS
Zinegotzia
EAJ



GUILLERMO VIO DOMINGUEZ «WILLY»
Zinegotzi ohia
EH Bildu



BERTA RODRIGUEZ FERNANDEZ
Zinegotzia
PP



TERESA FERNANDEZ GARCIA
Zinegotzia
PSE-EE



EDER GARCIA LOPEZ
Irabazi



JON ANDONI GEREDIAGA BILBAO
Denok Batera



JUANTXO DEL VIGO CRUZ
Zinegotzi ohia
Orain Sopela

Alkategaiak 2015



JAVIER BILBAO LOPATEGI
Alkatea
EAJ



JOSU IRATZAGORRIA JAUREGI
Zinegotzi ohia
EH Bildu



IGNACIO ZAYAS CASTRO
Zinegotzia,
Berangon
PP



ENRIQUE ADALID LOPEZ
PSE-EE



TEODORO ANTUÑANO VADILLO
Denok Batera



Sukaldean

Lasagna boloniar erara, zuzeneko rock doinuakaz



OSAGAIK:

Irina, arrautza, tipula, berakatza, azenarioa, apioa, tomate naturalaren saltsa, haragi txikitua, piperbeltz beltza, bexamela, intxaur muskatua eta gazta birrindua

XURRUT TABERNA

Itsasbide kalea, 21. Gorniz
Tel.: 946 771 389
www.xurрут.com

Gornizko bihotzean Xurрут taberna dugu. Aurten, 30 urte bete ditu, eta hasieratik musika izan du bidelagun. Kontzertuetarako gunea da Xurрут; urte hauetan guztietan hamaika talde igaro da bertatik, euren doinuak aurkeztuz eta gerrikoak astinaraziz. Musikaz gainera, pizzengatik ere ezaguna da taberna. Ostera, badiu beste hainbat eskaintza ere, berbarako: lasagna boloniar erara, Bizkaian egindako Red House garagardoagaz lagunduta. Plater hori zelan egiten duten jakin gura? Lehenengo eta behin, orea egingo dugu. Horretarako, irina eta arrautza bat nahastu eta hozkailuan utziko dugu 30 minutu. Ondoren, pasta-laminak egiteko, orea zatitu eta luzatzeko esku-maki-

natik pasatuko ditugu zatiak. Behin laminak eginda ditugula, lapiko batean irakin arina emango diegu ur gazitan. Tipula eta barazkiak potxatu, irabiagai-luz pasadaxo bat eman eta sutan jarriko ditugu berriro. Jarraian, haragia gehitu, piperbeltz beltzagaz, eta dena ondo nahastu; horren gainean tomate-saltsa botako dugu. Bexamela prest izan behar dugu; laberako erretilu batean horregaz geruza bat egingo dugu, eta horren gainean kapak egiten hasiko gara laminakaz eta nahasketagaz. Ordena hori errepikatuko dugu erretilua bete arte. Azken geruzan bexamela bota eta gainean gazta birrindua ipiniko diegu. Hala, labera sartuko dugu eta 20 minutu utziko dugu 180 gradutan. Listo! ◀

faceguk



Interesik bai
udal bozketetan?

ROSI OLARRA BEITIA

GORNIZ



Herri txikietan elkar ezagutzen dugu denok. Gainera, alderdi batean zein bestean, beti jende berbera aurkezten da. Botoa betikoari ematen jarraituko dut nik.

IGOR FLORES LEDESMA

GORNIZ



Aurten asko pentsatuko dut zein bozkatu. Alderdi politikoak elkarri mokoka dabilta beti, eta, bitartean, gauza asko dago egiteko. Egoera kaskarra bizi dugu.

JAGOBA MOLY SOLOZABAL

GORNIZ



Herriz aldatu dut orain gutxi, eta lehenengo aldia da hemen bozkatuko dudana. Alkateaz kezaka dabilta inguruko auzokideak. Beraz, ez diot horri botoa emango.

AGEDA SOLORZANO LOPEZ

GORNIZ



Hori bost axola niri! Nahikoa daukat jasotzen dudana erretiro-pentsioagaz, ez dut uste kenduko didatenik. Politikariek gauza baliagarriagoak daukate lapurtzeko.

JON ONZAIN URRUTIA

GORNIZ



Egoera zelan dagoen ikusita, nire ustez, udal hauteskondeez paso egiten dugu gazteok. Nire adineko neska-mutilei berdin zaie bata edo bestea alkate ateratzea.

Dastaketa-fitxa

GARAGARDOA: Red House.

GARAGARDOTEGIA: The Angry Brewery.

OSAGAIK: Ura; pale, crystal, roasted, chocolate, carapils eta olo maltak; East Kent Goldings, Pacific Gem eta Cascade lupuluak; eta Ale legamia.

DASTAKETA: Kobre-gorri koloreko Red Alea, gardenia eta distiratsua. Bits argia eta burbuila finduna. Maltazko usain leun eta orekatua, lore eta fruta ukituakaz. Zapora kulunkagarria, sarrera gozoagaz eta jarraipen mingotsagaz. Loditasuna: arinetik erdiera artekoa; eta karbonatazio ahulagaz. %5 alk. bol.

Info+: 639 759 569 | info@theangrybrewery.com



HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoen 16, 2. solairua 48991 GETXO

e-Posta: hiruka@hiruka.eus

Posta Kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Erredakzio-burua: Irantzu Sagaminaga

Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Julien Nafarrate, Inigo Fernandez de Martikorena

Argazkiak: Hodei Torres

Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri

Publizitatea: Erika Martinez eta Ninbe Landa

Kudeaketa: Zortza Merino

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA

Lege Gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95 **CC-BY-SA**

Ale-kopurua: 8.000 ale



Erakunde laguntzaileak:

